

Hezkuntza

gehiengo
sozialarekin!



STEE-EILAS
X. KONGRESUA
GASTEIZ
2014ko
maiatzaK 16 eta 17

1. 1. Sarrera: azken urteotako bilakaera

2. Aurreko kongresutik hona, elementu ugari agertu dira hezkuntza arloan, gehien-gehienak, zoritxarrez, kaltegarriak oro har. Han eta hemen, kanpoan nahiz gurean, arduradun politikoen orain arteko erabakiak eta aurrera begirako egitasmoak ez doaz guk nahiko genukeen hezkuntza politikaren bidetik, Burlatako 2006ko eta Donostiako 2010eko kongresuetan finkatutako *Gure Hezkuntza Eredua* izeneko dokumentuan jasotako proposamenen ildotik. Finantza-krisiaren aitzakiaz, murrizketa bortitzak jasan behar izan ditugu zerbitzu publiko guztietan, eta hezkuntza publikoan oso era berezian: milaka irakasle gutxiago ikasle kopurua igo arren, ordezenak ez betetzea, ratio altuagoak, lan-ordu gehiago, soldaten murrizketak, ikasleen aniztasun eta premia berezietarako arreta-programak eta espezialistak desagertzea, unibertsitateko tasen gorakada, haur-eskolen desarautzea eta prezio publikoen igoera, eskola jantokiaren eta garraioaren baldintzak gogortzea, maila guztietako bekak ikaragarri murriztea, irakasleen erretiroa atzeratzea eta eragozte, irakasle berrientzako sarbide-prozesuak bertan behera uztea... Ondorioz, gobernu guztien aurrekontuetan, hezkuntzarako diru-partida gutxitzen joan da azken urteotan, maila guztietan, eta oso era esanguratsuan.
3. Eta eraso ekonomiko horiekin batera, gainera, bestelako neurri ideologikoak ere hartu izan dira, betiere eredu neoliberaletik abiatuta: hezkuntzaren pribatizazioa areagotu egiten da toki eta etapa guztietan, eleaniztasun mota guztietako proiektuak orokortu dira nonahi atzerriko hizkuntzak (ingeleza, batez ere) hizkuntza propioen gainetik bultzatzeko asmoz, Lanbide Heziketa enpresa pribatuen exijentziei erantzuteko diseinatzen ari da hezkuntzari baino lan-eskuaren prestakuntza hutsari begira, unibertsitatean Bolonia ezarri da guztiz, Derrigorrezko Hezkuntzan nahiz Ondokoan bultzada politikoa eta ekonomikoa ematen zaie hainbat tokitan ikastetxe pribatuei, Haur Hezkuntza (edo, hobeto esanda, haurren zaintza hutsa) etxe barrura sartu nahi da berriz ere, curriculum ofizialak merkatuen exijentzien arabera planifikatzen dira era guztiz homogeen eta ikasleen aniztasuna nahiz premia bereziak kontuan hartu barik, erlijioaren pisua berreskuratzen da, blindatu egiten da legez ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeen finantziazioa sententzia judizial batzuei aurre egiteko, bizialdi osorako hezkuntzaren erantzukizuna gizabanakoari soilik atxikitzen zaio jendarte osoaren ardura ukatuta, ikasleen emaitzak irakasleei bakarrik leporatzen zaizkie izugarritzko eragina duten jendartearen gainerako faktore soziokultural guztiei erreparatu gabe...
4. Hau da, hezkuntza publikoaren kontrako oso eraso gogorra ari gara pairatzen azken urteotan ikuspegi ekonomiko nahiz ideologikoetatik. Hezkuntza

STEE-EILASek beti defenditu dituen funtsezko printzipioetatik urruntzen ari da abiadura handian. Gainera, joera pribatizataile, neoliberal, merkantilista eta erreakzionario horiek guztiak finkatuko dituen goi mailako lege-ekimena onartu da: **LOMCE**.

5. Joera horri bultzada handia eman dio estatuko gobernu zentralak, PPK Gorteetan duen gehiengo absolutua baliatuta, hezkuntza-eragile guztien iritzien aurka. Urte luzetan hainbat erkidego autonomotan (Madril, Balearrak...) PPren gobernuak esperimentatutako hezkuntzaren eredu guztiz neoliberalak orokortu nahi da. Hezkuntza politika atzerakoi horrek, jakina, oso mobilizazio handiak eragin ditu azken bi ikasturteotan. Halere, ez dugu ahaztu behar PSOEren aurreko gobernuak berak ere, modu zuzenean batzuetan eta zeharka beste batzuetan, aldaketa batzuk txertatu zituela LOEk finkatutako hezkuntza sisteman, Ekonomia Sostengarriaren Legearen eraginez, esaterako.
6. Gurean, berriz, hainbat aldaketa politiko suertatu dira Hego Euskal Herriko erkidego autonomo bietan. EAEn PSEren aurreko gobernuak ezer gutxi egin zuen euskal eskola publikoa indartzeko, aurretik zetorrenari eutsi eta hura kudeatu besterik ez baitzuen egin. Ondorioz, matrikulazioari buruzko azken datuek euskal eskola publikoaren aldeko igoera oso txiki bat egon dela adierazten badute ere, ikasleak sare publikoaren eta pribatuaren artean erdibana banaturik daude oro har, Europako batez bestekotik oso urrun jarraitzen dutelarik.
7. Horrez gain, gobernu zentralak behartuta zegoela batzuetan eta beste batzuetan ekimen propioen ondorioz, murrizketak ere ezarri zituen ikastetxeetan: ratioen igoerak, aniztasunari erantzuteko programen murrizketa, irakasleon soldataren hurrenez hurreneko izozketak eta jaitsierak, ikastetxeen funtzionamendurako diru-partiden konfiskazioa, ordezpenetarako araudiaren okerrerako aldaketak...
8. Eta sailburuaren ahalegin nagusiak, baita diruren bat ere, ekimen guztiz politiko bitan erabili ziren: ikastetxeetako bakerako plana eta hezkuntza marko hiru eledunaren proiektua. Biek sortu zuten, zer esanik ez, nahiko eztabaida eskola komunitatean. Horiez gain, Madrilgo Lanbide Heziketa duala baino egokiagoa izanda ere, enpresarien mesederako kutsu neoliberal argia duen alternantziatzko lanbide heziketa ere aipatu beharra dago. Eta, azkenik, ikastetxeetako zuzendariak irakasleetatik bereizteko lege-urrats batzuk ere eman zituen.
9. Hauteskundeen ostean, EAJk hartu zuen gobernuak, eta, azken 30 urteotan lehenengoz, Hezkuntza Sailaren ardura. Agerian dago hasieratik oso

eragin politiko gutxiko departamentua dela gobernuaren barruan, eta horri gehitu behar zaio gobernuko alderdia gutxiengoan dagoela Gasteizko legebiltzarrean. Hasieratik, oso posizio epela erakutsi zuen LOMCE lege-aurreproiektuaren aurrean, eta orain arte adierazitako egitasmo bakarra izan da Euskal Herrirako curriculum hezkuntza lantzen hastea eragile batzuekin (gu ez gaituzte deitu!), ustez hezkuntza lege propio bateranzko bidean. Baina horretan ere ez du lidergoa hartu, eta hainbatetan bestelako interes partikularrak adierazi dituzten beste eragile, ustezko aditu eta presio-talde batzuen eskuetan utzi du: berriro ere, badirudi ikastolak eta ikastetxe erlijiosoen patronalak izango direla Euskal Eskolaren balizko legea sortzeko bidelagun nagusiak. Eta, noski, publikotasuna ez da, inoiz ez da izan eta badirudi ez dela izango EAJren lehentasunezko ardurak: eroso sentitzen da oso egungo sare banaketarekin, eta finkatu egin nahi du. Gainera, “hezkuntzaren eskubidea” printzipiotik “hezkuntza-zerbitzuen eskaintza” delakora LOMCEk eginiko pasabidea ontzat ematen du, antza. Ezin dugu, beraz, haren aldetik ezer espero Madrildik datorkigun azken eraso hau tinko gelditzeko.

10. Beraz, batzuk joan besteak etorri, gure hezkuntza sistemaren aspaldiko erronkek erantzun egokiaren faltan jarraitzen dute: sare publikoaren eta pribatuaren arteko desoreka, aurrekontu nahikorik ez eta inbertsio falta, eskola-mapa, ikasle behartsuak eta etorkinak eskolaratzea, langileon lan-baldintzak hobetzea, plaza publikoak toki eta etapa guztietan bermatzea, beharrezko egokitze-obrak eta eraikin berriak, erretiro-sistemak bateratzea, ordezpenak lehen egunetik betetzea... Eta badirudi sindikatua hezkuntza-eragile dela aldarrikatu beharko dugula, berriz ere, goi mailako arduradunen aurrean eta hezkuntza-politika foroetan, eman nahi diguten esparrua gero eta estuagoa baita, lan-baldintzen inguruko negoziazio soilera mugatua (batzuetan ezta hori ere!); eta bien bitartean, botoen bidezko egiazko ordezkaritza legalik ez duten beste erakunde batzuekin adosten dituzte gauza garrantzitsuak.

10 bis. Laburbilduz, hezkuntza sistema publikoa ataka larrian jartzeko bidean dago. LOMCEren eta murrizketen erasoaz gain, ez dira gutxi pribatizazioa indartze aldera etor daitezken urratsak, irizpide publikoen eta irakaskuntza publikoaren kalterako. Batetik, sare pribatuaren finantziazioa handitzearen aldeko eskaerak ugaritzen ari dira (benetan kezagarria da arlo horretan patronalek esparru sindikaletik jasotzen ari diren laguntza), “Hezkuntza zerbitzu publikoak” eufemismoa erabiliz, balizko “berdintasun irizpideak” aldarrikatuz eta publikotasunaren aldarria finantziazio gaietara mugatuz. Bestetik, norabide berean doan Eusko Jaurlaritzaren Heziberri 2020 egitasmoa dugu. Euskal Hezkuntzaren legea gauzatzea da haren helburu nagusietako bat, aurretik beste zenbait urrats emango badira ere. Egun,

publikoak ez diren sareetako eragile eta patronal nagusiek euren babesa eman diote egitasmoari, besteak beste, “Ikastetxe publikoak eta itunpekoak, bakoitzaren ezaugarriak galdu gabe, ekitatean eta efizientzian oinarrituz, egonkortasuna izango duen hezkuntza sistema bateratua osatu ahal izateko” xede duelako. Ez dirudi hori denik oinarrizko zerbitzu publiko bat sendotzeko modurik egokiena, eta bai, ordea, ezberdintasunak areagotzeko, sistema publikoa ahultzeko eta pribatizazio joerak indartzeko, diskurtso modernoaz zuritzen bada ere.

11. Nafarroari dagokionez, aurreko legealdian UPN/CDNren gobernuak, nahiz eta Hezkuntza Kalitaterako Ituna osotara ez garatu, handitu egin zuen eskola publikoan egindako inbertsioa. Ondorioz, aniztasunaren trataerarako neurriak areagotu ziren, irakasleek ematen zituzten irakastorduak jaitsi eta ehunka lanpostu sortu ziren. CDNko kontseilaria egon zen bi urteetan denbora izan zuen TIL-HTB-ko (Hizkuntzen trataera bateratua) programa esperimentalak martxan jartzeko, baina ez zuen bete, besteak beste, hartutako konpromiso bat: Haur Hezkuntzaren lehenengo zikloaren kudeaketa komuna. Legealdiaren erdian, CDN gobernutik atera zen, eta harreman instituzionalerako eta gobernuko bozeramailea zen kontseilariak Hezkuntza Departamentua ere bere gain hartu zuen. Bi urtez ez zuen inolako interesik erakutsi hezkuntza alorrean.
12. Hauteskundeak egin eta gero, oraingo legealdiaren hasieratik, axolagabekeriak murrizketa basatietara eman du urratsa UPNk, PSNren laguntzaz. Ezagutu dugun eraso bortitzena pairatu du eskola publikoak azken urteetan. 2012ko Errege Dekretua hitzez hitz aplikatuz, ratioak igo dira, irakasleen irakastorduak ere bai, ordezkoen lan-baldintzak okertu egin dira eta ia-ia desagertzeaz daude prestakuntza zein era askotako programetarako baliabideak. Eskola publikoko aurrekontuak jaitsi diren bitartean eskola pribatuentzako kontzertuak ia aldaketa gabe mantendu dira. Are gehiago, ikasleak sexuz bereizten dituzten ikastetxeak diruz hornitzen jarraitzen dute Nafar Parlamentuak ezarritako legea kontuan hartu gabe.
13. Haur Hezkuntzako 1. zikloan urrats baikorrak eman ordez, aldatu egin dute zikloa arautzen duen dekretua ratioak igotzeko, eta bikoiztu egin dituzte tasak “eliteentzako” zerbitzua bihurtuz.
14. HTB (hizkuntzen trataera bateratua) IIP bihurtu da (ingelesa ikasteko programak). Izen aldaketa horrek agerian utzi du gobernuaren helburua: ingelesa bultzatzeko aitzakian, euskararen zabalkundea oztopatzea. Dagoeneko 60 ikastetxeetan ezarri da, gehienetan inposaketaren bidez eta ehunka arazo sortu dira. Bitartean, ez da urratsik eman Nafarroa osoan euskaraz ikasteko aukera bermatzeko. Hau gutxi ez eta, D ereduko irakasleen aurkako

- kanpaina mediatikoa, gobernuak berak elikatuta, pairatu da aurrematrikulazioen bezperan.
15. LOMCEri dagokionez, ezaguna da UPNren gobernuaren jarrera: abstenitu egin zen Madrilgo gorteetan LOMCEren testua bozkatzeko garaian, baina berehala agertu zen legea betetzeko prest. Hori bai, “nafartar erara”. Gai-nontzeko talde parlamentarioek hasieratik, eta behin eta berriro, errefusatu egin dute.
 16. Dena den, eraso horien guztien aurrean hezkuntza eragileen batasuna lortu da eta mobilizazio jendetsu ugari antolatu dira azken urteetan, hiritarren babes zabalekoak.
 17. Unibertsitateak etengabeko arau aldaketak eta diru baliabideen murrizketak baldintzatuta egin du bidea azken urteetan. Bologna prozesua abian jarri zenean, mehatxuz betetako aukera gisa baloratu genuen. Denbora igaro da, eta ez dira gauzatu unibertsitate ereduaz eztabaida egiteko aukera, ezta irakaskuntza aurrera eramateko eredu pedagogikoa hobetzeko aukerak ere. Gainera, ez da egon inolako asmorik unibertsitate-ereduaz eztabaidatzeko.
 - 17 bis. Bolognako erreforma kapitalaren agendaren ondorioz jarri da martxan eta erreforma bera izan da helburua, merkatuari gero eta lotuagoak diren ikasketak garatuz. Goitik beherako prozesua izan da eta baliabide ekonomiko nahikorik gabe. Ondorioz, pedagogia aktiboak martxan jartzeko beharrezko formazioa mugatua izan da, eta irakasleen borondatean sus-traituta egon da, taldeen tamaina txikitu beharrean handitu egin da eta eba-luazio jarraituaren interpretazio kaskarra zabaldu da: klasera joan beharra eta azterketa gehiago.
 - 17 bis bis. Gradu eta Graduondokoen diseinuan ez da bete ezta homologazio helburu formala ere. European nagusia den 3+2 diseinuaren orde, gurean 4+1 ezarri da eta azken finean lan merkaturako sarbidea izateko baldintza bihurtu da graduondoko bat izatea. Elitizazioaren mehatxua gauzatu egin da, graduondokoen matrikula askoz garestiagoa baita eta horien diseinuan merkatuak eskua sartzeko bidea irekita baitago. Graduondokoak uniber-tsitateko botere-guneen eta enpresa pribatuen interesen arabera garatu dira, ez euskal jendartearen beharrak asetzeko.
 18. Unibertsitate Publikoak goi mailako hezkuntza eskaintzen du, eta erakun-de estrategikoa da berdintasunezko gizarte bidezkoagoa nahi duen herri batentzat. Botere publikoek horrela onartu behar dute eta horrela islatu behar dute gizarteari zuzentzen dioten mezuetan. Era eraginkorrean, in-dependentziaz eta inongo presio politiko edo ekonomikorik gabe bere

jarduera aurrera eramateko, finantziario nahikoa eta iraunkorra bermatu behar diote erakunde publikoek.

19. NUPeri dagokionez, murrizketak 2010ean iritsi ziren eta geroztik inbertsioa gero eta txikiagoa izan da. Hori dela eta, ikerketa gehienak bertan behera gelditu dira, jubilatzen direnen lanpostuak ez dira ordezkatzeko eta departamentu batzuk ia irakasle asoziatuekin soilik mantentzen dira. OPUseko unibertsitateari, berriz, ez zaio finantziariorik falta, Psikologia eta Pedagogia fakultate berria ireki du, irakasletza gradua ingelesez eskaintzen hasi da... eta Nafar Gobernuak erraztasunak ematen jarraitzen du (adibidez, Donapeako lur eremua eskaini nahia).
20. Ondorengo lerroetan, beraz, **STEE-EILAS**ek posizio argi batzuk finkatu beharko ditu aipatutako gaien inguruan, hemendik aurrera, datozen urteotan etorriko zaizkigun erronkei gogor eta gogoz aurre egiteko.
21. Urteetan jorratutako oinarriak gogora ekarrita, **STEE-EILAS**ek proposaturiko hezkuntza ereduaren funtsezko ardatzak Burlatan finkatu genituen 2006an, eta Donostian 2010ean egokitu eta berretsi. Azken lau urteotan, gainera, LOMCeren lege aurreproiektua dela eta azaldu zaigun erronka berria Kontseilu Nazional batean jorratu izan dugu.
22. Azken batean, horietan guztietan finkatutako Gure Hezkuntza Eredua oinarritzat hartuta, egungo erronkei buruzko zenbait gogoeta garatzea izan da gaurko txosten honen helburu nagusia; alegia, **STEE-EILAS**en Hezkuntza Eredua etengabe eguneratzen jarraitzea, baita gure funtsezko printzipioak berrestea ere.

23. 2. Euskal hezkuntza-sistemaren egitura

24. 2.1. Sare publikoan ardazturiko hezkuntza-sistema propioa

25. Euskal Herrian gure egoerara egokitutako hezkuntza-eredua behar dugu, hau da, **hezkuntza-sistema propio** bat, hemengo hezkuntza-eragileon adostasunen bidez guk geuk diseinatutakoa, gure errealitateari erantzuten diona, gure hizkuntza eta kultur ondarea bermatzen dituen, gure jendartearen eta gizakion zerbitzura dagoena, eta guretik mundura zabalik dagoena.
26. Abiapuntu horrek, baina, berezko arazoak ditu: batetik, Euskal Herriaren zatiketa administratiboa bi estaturen artean, eta, bestetik, Hego Euskal Herria bertan ere administrazio bi izatea. Dena den, hezkuntza-sistema propio bat aldarrikatzea ez dago derrigorrez lotuta egungo marko juridiko-politikoa gainditu beharrezkin. Arazoak arazo, ekimen, antolaketa eta proposamenak bultzatuko ditugu zentzu konbergentean, Euskal Herri osoa aintzat hartuta hezkuntza-sistema propiora hurbiltzeko ahaleaginean, eta toki zein egoera konkretu bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuz.
27. Hauxe dugu, esaterako, beste hamaika arrazoi pedagogiko nahiz ideologikoren artean, LOMCeri ezetza emateko argudio nagusietarikoa: urratu egiten ditu guztiz gure lege-eskumenak, kanpotik datorkigun inposizioa hutsa da, eta, jakina, ez du gure errealitatea aintzat hartzen: lege horren abiapuntutik bertatik justifikazio gisa erabilitako egoerak eta datuek ez dute zerikusirik gure errealitatearekin, eta, ondorioz, ez die erantzuten gure jendartearen egiazko beharrei.
28. Baina sistema propioa izatea ez da berez nahikoa; horixe dugu lehenengo baldintza: **propioa bai, baina ez edonolakoa**, propioa izate hutsak ez baitu berez bermatzen egokia eta justua izatea. Horrekin batera, eta ezinbestean, maila guztietako kalitate handiko ikastetxeen sare publikoa izan behar da gure sistemaren bigarren zutabe nagusia. **STEE-EILAS**ek ulertezina deritza hezkuntza-sistema propioa eta euskal eskola publikoaren aldeko aldarrikapenak bereizteari: **Euskal Eskola Publikoa** betidanik izan dugu, badugu gaur eta aurrerantzean ere izango dugu sindikatuaren abiapuntu eta ikur nagusia.
29. Jendartearen kohesioa, pertsona guztiok aukera berberak izatea eta izan litezkeen jatorrizko desberdintasun pertsonalak nahiz sozio-ekonomikoak

eta kulturalak konpentsatzea ikastetxeen sare publikoak baino ez du bermatzen. Ez da ahaztu behar ikastetxeen egungo beste sare batzuk diru publikoz hornitzeak egoera segregatzaileak, baztertzailak, bidegabeak, insolidarioak eta sozialki erabat injustuak ahalbideratzen dituela hainbat kasutan. Egon daitezke, eta egon daude, ikastetxe salbuespen batzuk, baina oro har, sare edo sistema moduan, hezkuntzaren sistema publikoak bakarrik berma ditzake aurreko ezaugarri guztiak. Itunpeko irakaskuntzak, are gutxiago irakaskuntza erabat pribatuak, euskal hezkuntza-sisteman duen funtzioa ezin da, inolaz ere irakaskuntza publikoaren maila berean kokatu eta familiek ikastetxea aukeratzeko duten eskubideak ezin du mugatu euskal hezkuntza-sistema antolatzeako administrazioak duen erantzukizuna. Beraz, hezkuntza-itunen politika errotik aldatu beharra dago, besteak beste, batzuek kontzertazioa eskola-txekea bihurtu nahi dutelako, edo, hori ere gaindituta, ia mugarik eta kontrolik gabeko itunpeko ikastetxeen finantziazio-sistema berria ezarri: finantzaketaren parekotasuna ezin da inolaz ere onartu abiapuntu sozial eta funtzionamendu-baldintza erabat ezberdinak dituzten ikastetxe-sareen artean.

30. Ikastetxeen sare pribatuaren ustezko funtzio sozialaren defentsari, berdindetik datorren -batzuetan ezkerretik ere bai-, aurre egin behar diogu, kalitatezko zerbitzu publiko indartsuetan oinarritutako gizartearen kontra zuzenean datorrelako: hezkuntza arloan batzuek publikotasunaren inguruan egiten dituzten planteamendu motelak eta anbiguoak ezin izango lituzkete jendartearen eta zerbitzu publikoen beste eremu batzuetan defendatu: osasun, menpetasun edota pentsioen arloetan, esaterako.
31. Abiapuntu horretatik finkatu beharko dugu, orduan, gure posizioa etorkizunean heldu dakizkigukeen honako erronken aurrean: eskola-mapa, ikasleen onarpena eta matrikularen gorabeherak, aniztasunari eta hezkuntza premia bereziei aurre egiteko planak, finantzaketa, eta, jakina, Euskal Herriko Hezkuntzaren balizko legea.
32. Aurrekoaren guztiaren ildotik, bada, Euskal Eskola Publikoaren Plan Estrategiko bat eskatzen dugu, honako helburu hauek jaso beharko dituenak: hezkuntza-eskaintza publikoaren plangintza (eskola maparen diseinua, etapa eta toki guztietan plaza publiko nahikoak, ikasleak onartzeko prozesua...), giza baliabideak gehitzea, baliabide material nahikoak hornitzea, egungo ikastetxe publikoen instalazioak egokitzea, beharrezko ikastetxe berriak eraikitzea. Eta hori guztia bideratzeko beharrezkoa den finantziazioa eta legedia ziurtatu beharko ditu.
33. Bestalde, hainbat ikastetxe pribatu (Nafarroan lehen aldiz, EAEn, bigarrenez) sare publikoan sartzeko aukera zabaldu beharko litzateke.

34. 2.2. Hezkuntza sistema integrala

35. Etengabeko aldakuntzan murgilduta dagoen jendarte batek, behin eta berriro egin behar die aurre erronka kultural eta teknologiko berriei.
36. Bizi arteko ikasketak ardaztu behar du hezkuntza-sistemaren eskaintza. Hau da, jaiotzatik hasi eta nagusi-aroaren bukaeraraino luzatu behar da, hezkuntza maila guztiak barne: haur hezkuntza osoa, oinarriko hezkuntza derrigorrezkoa, helduen hezkuntza, lanbide heziketa (modalitate guztiak), hizkuntzak, unibertsitate-ikasketak eta bizitzan zeharreko prestakuntza.
37. Eta etapa guztietan, bakoitzari dagokionaren arabera, prestakuntza akademiko edota profesional egokia ez ezik, pertsonaren garapen pertsonala eta soziala ere bermatu beharra dago; baita librea, demokratikoa, askotarikoa eta giza-eskubideak errespetatzen dituen jendarteari dagozkion balio pertsonaletan eta kolektiboetan oinarritutako heziketa ere.
38. Zerbitzu publikoen hedapena lehenestearen alde gaude **STEE-EILAS**en, jendartearen kohesioa, berdintasuna eta ekitatea bultzatzen baitituzte, ez baitute generoaren araberako lan-bereizkeriarik areagotzen, eta enplegua sortzen baita. Bereziki, beharrezko ikusten dugu Haur Hezkuntzako 1. zikloaren izaera hezitzailea aitortzea, doakotasuna bermatzea, behar beste plaza sortzea eta gainontzeko etapekin lotura izatea, haurren eskolaratze goiztiarrak abantaila handiak baititu sozializaziorako, euskalduntzeko prozesua errazteko, arazoak aurreikusteko eta jatorrizko ezberdintasun pertsonalak nahiz sozialak konpentsatzeko. Abantaila horiek ikasle guztiei bermatzeko, ziklo hau doakoa izan beharko litzateke eta hezkuntza sistema publikoaren barruan egon.
39. Behar sozialak betetzeko eta haurrei zein nerabeei ongizatea bermatzeko, eskolak denbora eta zerbitzu gehiago eskaini beharko ditu. Jakina, oso argi bereizi behar dira, alde batetik, zerbitzuak eskaintzen duen ordutegia eta egutegia zein den, eta bestetik, langileek dutena. Horrek ez du esan nahi ikastetxeek umeen eta gazteen bizitza osoa antolatu behar dutenik, haurrek eskaintza zabalagoa behar baitute adinean aurrera joan ahala. Hala ere, derrigorrezko hezkuntzaren tartea bukatu arte, hezkuntza-sistemak jantokiko behar adina plaza eta eskolaz kanpoko kalitatezko eta era askotako jarduerak eskaini beharko lituzke. Baita garraioa bermatu ere beharrezkoa denean. Horrekin batera, langile guztien eskubideak eta lan baldintzak ere hobetu beharko dira.
40. Azken urteotan, aitzitik, neurri antisozial ugari ari dira zabaltzen hainbat hezkuntza etapatan. Haur hezkuntzan, esaterako, prezioak igotzeak eta

zerbitzu osagarriak (jantokia, batez ere) ez eskaintzeak oso eragin kaltegarriak izan dituzte: etapa horretako haur-eskola publikoetan matrikula nabarmen jaitsi da eta pribatua, ondorioz, indartu; gainera haur-etxeak bezalako alternatiba desarautzaileak eta privatizatzaileak bultzatu dira. Derrigorrezko hezkuntzan, ikasle behartuentzat indartze programak eta hezkuntza premia bereziak dituztenentzat arreta-neurriak suertatu dira kalte-tuetuenak. Murrizketak helduentzako hezkuntzako hainbat programatan ere egon dira (ez arautu ia guztiak desagertu dira). Eta unibertsitatean aukeraberdintasunak atzera egin du tasen igoera eta beken jaitsiera direla eta.

41. Baina, ziur aski, Lanbide Heziketa ari da pairatzen “bizialdi osorako hezkuntzaren” planteamendu neoliberalaren ondorioz gogorrenak. Izenburu erakargarri horren atzean, hezkuntza-negozioa eremu pribatuan hedatzea, langileen etengabeko prestakuntza enpresarien beharrezanetara soilik egokitzea, hezkuntza enplegukortasun huts bihurtzea, tituluak emateko ahalmen legalak bestelako erakunde batzuei ere zabaltzea (privatuak gehienbat), enpresa pribatuentzako prestakuntza eta berrikuntzaren jarduerak diru publikoz soil-soilik ordaintzea, ikasleen lan-praktikak lanpostuak betetzeko erabiltzea baldintza ezin kaskarragoetan, hezkuntza eta prestakuntza zerbitzu publikoa barik negozio bihurtzea, eta horien antzeko beste asko antzematen dira gero eta gehiagotan.
42. Eta, hezkuntza sistema integrala, koherentea, bateratua eta ez segregatzailea antolatzeke, ezinbestekoa da eskola mapa bat, hezkuntza maila guztiak eta ikastetxe guztiak batera aintzat hartuko dituen. Lehenik eta behin, zonifikazio berbera planteatu behar da eskualde guztietan ikastetxe publiko eta itunpekoentzat, inongo bereizketarik gabe. Horrekin batera, hezkuntza-administrazioaren kontrolpeko matrikulazio-prozedura bakarra ezarri behar da, eta ikasleak onartzeko irizpide eta baremo berak diru publikoz sostengatzen diren ikastetxe guztietan. Askotan, ikastetxe pribatuak eta haien patronalak dira bereizketa aldarrikatzen dutenak: ikastetxearen idearioa ezartzeko ahalmena, ikastetxea aukeratzeko familien legezko eskubide ustez mugagabea, bazkideen eta ikasle izandakoen seme-alaben ustezko lehentasuna... Baina, azken finean, ikasleak aukeratzeko ahalmen guztiz ilegalak baino ez dabilta eskatzen, nahiz eta gero, behin eta berriz aldarrikatu “ekimen sozialeko ikastetxeen” direla jasotzen duten finantziario publikoa handitzea eskatzen duten bakoitzean (“betebehar berdinak, eskubide berdinak” lelopean, jakina!).

43. 2.3. Euskal Unibertsitate Publikoa

44. Hezkuntza Sistema integrala aldarrikatzen dugu, goi-hezkuntzak aurreko mailetako hezkuntzarekin lotura eta jarraipena izatea eskatzen dugu. Aldi

berean, aldarrikatzen dugun Euskal Eskola Publikoaren ezaugarriak goi-hezkuntzako sistemaren ardatzak ere izan behar dira.

- 45.** Gai honek garrantzi berezia hartzen du une honetan, Goi-Hezkuntzaren Europar Eremura egokitzeko prozesuaren ondorioak antzematen hasi baikara. Horrek bultzaturiko elitismoa, eredu neoliberala, goi-mailako ikasketen merkantilizazioa, ikastetxeen arteko lehiakortasuna... areagotu egin dira, gerora, krisialdi ekonomikoaren aitzakiaz, hartutako beste neurri batzuk direla-eta: unibertsitate publikoen aurrekontuen murrizketa, tasen igoera eta beken murrizketa, batez ere. Eta erasoak ez dira gelditu. LOMCE-ren atzetik, Unibertsitate Lege berria ezarri nahi du PPren Gobernuak.
- 45 bis.** Euskaraz ikasteko eskaria gorantz dator, eta hizkuntza horretako matriculazioari erantzun egokia eman behar zaio. Unibertsitateak bermatu egin beharko luke euskaraz ikasi nahi duen ikasle orok gradu-titulu osoa euskaraz egin ahal izatea. Horrekin batera, bere edukiagatik edota euskal gizartearekiko duten loturagatik euskaraz eskaintzea beharrekoak direla ikusten diren gradu-ondo guztiak. Era berean, euskarari eta euskal gizarteari zuzenean lotutako ikerkuntzetan eta arlo akademikoetan ikerlariak euskara jakitea eskatzen dugu.
- 46.** Ez dugu zalantzarik gure unibertsitate publikoek (EHUk zein NUPEk) aldaketa sakona behar dutela, eta horren alde gaude, baina ez Europako ala Madrilgo agintariak proposatzen duten norabidean. Aitzitik, unibertsitatearen demokratizazioa eta zerbitzu publikoaren izaera indartzen duen aldaketa defendatzen dugu. Mundura irekita eta gure jendartearekin konprometituta dagoen unibertsitatea nahi dugu: euskara sustatzea, sektore desfaboratuen beharrak kontutan hartzen, desberdintasunak gainditzea eta giza-garapen sostengarria bilatzen dituen.
- 47.** Baina, izan ere, garatu nahi dugun Euskal Herriko Unibertsitatearen eredu horri buruzko eztabaida ez da oraindik planteatu. Erabakitzeke aukerarik ez dagoela eta den-dena Europatik zein Madrildik aginduta datorkigula sinestara nahi digute. Horren aurrean, euskal jendarteak behar duen unibertsitate-sistemaren inguruan hitz egin beharra aldarrikatzen dugu: eskaini behar diren ikasketak, graduondokoen diseinua, zeintzuk diren bultzatu beharreko ikerketa-lerroak... Eztabaida hori ezin da egin “adituen” artean, PPko Gobernuak planteatu duen moduan. Gauza asko eztabaidatu behar ditugu, eztabaidatu unibertsitate barruan eta unibertsitatetik kanpo, jendarte osoan.
- 47 bis.** Gure unibertsitatea demokratizatu egin behar dugu, unibertsitario guztien parte-hartzea bultzatuz. Ildo horretatik, aurre egin beharko diogu PPko Gobernutik datorren mehatxuari: eraginikortasunaren izenean, parte-hartzea

murriztu nahi dute. Erabakietan parte hartzea, demokrazia eta eraginkortasuna kontrajarrita daudela sinestarazi nahi gaituzte. Atzean dagoena da boteredunaren interesak bete ahal izatea trabarik gabe. Horretarako, ikuspegi eta izaera enpresariala duten eragileen esku utzi nahi dute unibertsitatearen kudeaketa, akademiaren kaltetan eta gizarteko beste eragileen esku hartzea ere mugatuz. Errektorea bera aukeratzea eta erabaki akademikoak ere logika horren barruan hartzeko bidea ireki nahi da. Gure erantzuna: demokrazia gehiago.

- 48.** Gure unibertsitatea publikoa da. Ez dirudi horrela denik Eusko Jaurlaritzaren aldetik, unibertsitate publikoaren finantziazioa murrizten duen bitartean, gurean ere unibertsitate pribatuak zabaltzen ari baitira gobernuen bultzada eta diru-laguntza gero eta handiagoz. Horrekin batera, nahi da finantzatzaile pribatuek (enpresak, fundazioak, bankuak eta hauen antzeko mezenek) unibertsitate publikoa ere horni dezatela, funts publiko gero eta urriagoak ordezkatzeko. Eta horren eraginez, “jendarte-unibertsitatea” eredu” baterantz abiatu barik ere, unibertsitate publikoa jendarte osoaren zerbitzura jarri beharrean finantzatzaile pribatu horien guztien esanetara ipini nahi da, ikasketak, ikerketak eta ikasleen profilak ere beren beharrietara bakarrik egokituz.
- 49.** Kanpoko finantziazioa erakartzeko ahalmena ezin da unibertsitatearen kalitatearen adierazle nagusienetarikoa izan. Aldiz, kontuan hartu behar dugu horrelako finantziazioak unibertsitateko ezagutza etekin pribatura eta merkatuaren arauetara makurtzeko arriskua areagotzen duela. Enpresek bultzatzen duten ikerkuntza baino, jendarteak dituen beharrei erantzuteko baliagarria izango den ikerkuntza da bultzatu behar dena, unibertsitatea zerbitzu publiko gisa ulertzen badugu behintzat: unibertsitateak eredugarria izan behar du gizon eta emakumeen parekidetasunaren alde lan egin, jendarte desberdintasunak gainditu, ingurumena babestu, software askea zabaldu edota lankidetzak eta elkartasun irizpideen baitan planifikatutako ikerketa eta formazioa garatu.
- 49 bis.** Ikerkuntza eraginkorra behar-beharrezkoa da gizarte aurreratu eta aurrerakoi baten beharrei erantzuna emateko. Ikerkuntza horren eragile nagusia Euskal Unibertsitate Publikoak izan behar du. Ikerkuntza-lerroetan arreta berezia eskainiko die ondoko arloei: generoen arteko berdintasuna, ingurugiroaren defentsa eta hobekuntza, software librea garatzea eta hedatzea, eta lankidetzak eta elkartasuneko irizpidetan oinarritutako ikerkuntza eta trebakuntzarako jarduerak.
- 49 bis bis.** Unibertsitate Publikoak ez du lan egingo giza-eskubideen aurkako jardueretan nabarmendu diren erakundeekin; eta Unibertsitatearen etika, irakaskuntza eta ikerkuntzaren kodeek horrela jasoko dute.

50. 2.4. Finantzaketa

51. Oso ondo neurtu beharko da finantziario pribatua hezkuntzako eremuetan sartzeak zer arrisku ekar dezakeen. Hezkuntzak izan behar duen azken helburutik urruntzeaz gain (pertsonek formazio integrala), pertsonek arteko bereizkeria gauzatzen duelako (kuoten kasua), eta gainera, hainbatetan (Lanbide Heziketan nahiz Unibertsitateko graduondokoen kasuan) ordaina eskatu dezaketelako enpresa finantzatzaileek. Hezkuntza sistema publikoaren finantzaketa publiko egokia ezinbestekoa da ikastetxeek beren lana kalitatez egiteko, behar adina giza-baliabide eta baliabide material izateko eta jendartearen hezkuntza-eskari guztiei modu egokian aurre egiteko, baita goi mailako ikasketetan eta ikerketan ere. Hezkuntzako aurrekontuek ikastetxeen eta herritarren benetako premien arabera izan behar dute, ekonomia-irizpide soilen gaintik, jendarte-errentagarritasuna oinarritzat hartuta. Hartara, xede horretarako erabiltzen den aurrekontua ezinbestean nabarmen handitu beharra dago, eta azkeneko urteotako joera alderantz.
52. Gure espazio ekonomiko eta kulturalan, ohiko erreferentziatzat jotzen da **BPGren %6 eta %7** bitarteko kantitatea. Baina kopurua bezain inportantea da **banaketa nola egiten den**. Ildo horretan, ezinbestekoa da lehentasuna hezkuntza publikoak izatea, bera baita hezkuntza-eskubidea ziurtatzen duena, jendartearen kohesioan oinarrituta eta jendarte osoaren hezkuntza-beharrak berdintasunez bermatuta. Ikastetxe publikoen kudeaketa Hezkuntza Sailen ardura zuzena da, eta aurre egin behar diete une honetan ikastetxeak pairatzen ari diren baliabide eta azpiegitura gabeziak. Krisialdi ekonomiko-finantzarioaren aitzakian, murrizketa bortitzak izan dira egun hezkuntzako aurrekontuetan, aipatutako **%6-7** kopuru horren erdian utziz eta inguruko herrialde aurreratuenetatik gero eta gehiago urrunduz. Eta galera makroekonomiko horrek eragin zuzena izan du ikastetxe guztietan: milaka irakasle gutxiago, ikasle gehiago dauden une honetan. Hezkuntza premia bereziak dituztenentzat eta ikasle behartsuenentzat laguntzarik ez, “*numerus clausus*” mugatutako sarbidea Lanbide Heziketako hainbat ikasketetan, unibertsitateko tasen igoera, soldaten jaitsiera, haur-eskolak garestitzea, hainbat ikastetxeren diruaren konfiskatzea, baliabiderik eza, ratioak igo izana, beka gutxiago eta diru gutxiagokoak, programa eta proiektu asko desagertzea, hezkuntza-zerbitzu osagarrien prezioen gorakada, ikerketaren suntsipena... Agintariek gastu moduan bakarrik hautesmaten dute hezkuntza, ez funtsezko inbertsio sozial eta ekonomiko bezala, edo hau bezalako sasoi ilunetan **kohesio soziala eta garapen ekonomikoaldi berean** berma ditzakeen irtenbide bakar bezala.
53. Sare publikoa dagokion tokian jartzeko, hau da, hezkuntza-sistemaren ardatza izateko, **Plan Estrategiko** baten premia ikusten dugu, inoiz baino

argiago. Hezkuntza-maila guztietako ikastetxeek, haur eskoletatik unibertsitateraino, behar adinako finantzaketa izan behar dute, sare publikoa aukeratzen duten ikasle guztiei ikaspostu egokia bermatzeko.

- 54.** Ildo beretik, ikastetxe publikoen finantzaketa atal gehiagotara hedatuz joan behar da (hezkuntza-zerbitzu osagarriak, ikasleen ikasmaterialak...), baina familien diru-sarreraren arteko aldeak txikitzeko formulak baliatuta eta laguntza zuzen eta orokortuen eredutik urrunduta, bidegabea eta arbitrarioa delako. Aginte publikoen ardura da jendartearen eskariari dagokion hezkuntza-zerbitzu osagarrien eskaintza antolatzea eta zuzenean kudeatzea, justizia soziala eta aukera-berdintasuna bermatzeko dituen bereizkeriarik gabe. Zerbitzu osagarriok ez lituzkete hezkuntza-administrazioak ez eskaintza horren ardura luketen bestelako administrazio publikoek ere azpikontratatu behar.
- 55.** Egungo egoera ekonomikoa aitzakiaz baliatuz berriz ere, azken urteotan, zerbitzu publiko guztiak salgai ipini dituzte, etengabeko pribatizazio eta merkantilizazio prozesuan, gutxi batzuen onerako soilik. Horren aurrean hezkuntzan erakunde publikoek ezin diote, inolaz ere, muzin egin jendartearekiko duten ardurari. Ez da bidezkoa oinarritzko eskubidea den eta garrantzi estrategikoa duen hezkuntza-arloaren plangintza eta kudeaketa erakunde eta negozio pribatuen esku uztea, merkatu librearen menpe jarritz. Hezkuntza ez dago salgai merkantzia balitz bezala, ezta familien baliako eskubide pribatuen mesedetarako ere. Horregatik, **STEE-EILAS**ek ez du ontzat ematen egungo legedian jasotakoa.
- 55 bis.** Oso ondo neurtu beharko da finantziario pribatua hezkuntzako eremuetan sartzeak zer-nolako arriskuak ekar ditzakeen. Hezkuntzak izan behar duen azken helburutik urruntzeaz gain (pertsonek formazio integrala), jendarte mailako bereizkeriak gauzatzen dituelako (kuoten kasua), eta gainera, hainbatetan (Lanbide Heziketan nahiz unibertsitateko graduondokoen kasuan) ordaina eskatu dezaketelako enpresa finantzatzaileek.
- 56.** Bestalde, ez dugu ahaztu behar ikastetxe pribatu kontzertatuek sare publikoaren subsidiarioak izan behar dutela. Gaur egun, ikastetxe pribatu kontzertatuetako matrikula altuegia da oso gure hezkuntza sisteman, batez ere hezkuntza maila batzuetan; eta, orokorrean hartuta, gure ingurune sozio-politikoan (Europa eta Estatu Espainola) azaltzen diren proportzio guztien gainetik. Ideologia neoliberalak zerbitzu publikoak pribatizatzeke duen joerari helduz, eta bestelako arrazoi ideologiko batzuek tarteko, ikastetxe publikoen osagarri gisa planifikatu barik, erabaki politiko eta ekonomiko argia da ikastetxe pribatu kontzertatuen finantzaketa publikoa lehenestea. Testuinguru honetan, halere, gerta daiteke zerbitzu publiko izateak

suposatzen dituen benetako behar sozial guztiei heltzen dien ikastetxe pribatuen batek finantzaketa nahikorik ez izatea; baina, aldi berean, beste asko egon badaude, beren helburuengatik eta eguneroko jarduerarengatik inolako itunik merezi ez dutenak.

- 57.** Itunpeko irakaskuntzak finantziario eredu berria behar du, gaur egun indarrean dagoena guztiz arbitrarioa eta zuzengabea delako. Batetik, legeak agintzen duena baino harago doa hainbatetan: derrigorrezkoak ez diren ikasmailak, 0-2 adin tartean eskola pribatuak Haur eskola publikoak baino merkeagoak izatera iritsi dira, alferrik bikoizten diren hezkuntza eskaintzak edota sexu bereizketa egiten duten ikastetxeen kontzertazioak kasu (joera horren kontrako sententziak daude, LOMCEk berak ahalbidetuko du baina!). Bestetik, ez du aintzat hartzen ikastetxeak eskolatzen duen ikasle tipologia, ez legearekiko duen betekizun maila (kuotak, kontratazioa, idearioak, kudeaketa mota...). Finantziario sistema berriak, baldintzak eta irizpideak zehazteaz gain, modulu barruan sartu beharko lituzke gaur egun kanpo dauden kontzeptuak, orain arte erabilitako prozedurek (aginduak, deialdiak...) ez dutelako bermatzen beharrezko gardentasunik. Halere, eredu berria aldarrikatzen dugunean ez dugu patronalek eskatzen duten terminoetan egiten. Haiek eskubide berdinez hitz egiten dute, eta uko egiten diote betebeharren gainean hitz egiteari.
- 57 bis.** Diru publikoa jaso ahal izateko ikastetxe pribatuek ikastetxe publikoetako irizpideak gorde behar dituzte ezinbestean: besteak beste, ikasleen eskolaratze-prozesuetan diskriminaziorik ez, irakasleak kontratatze baldintza berdintsuak, erabateko doakotasuna, irizpide berberak ordutegiari dagokionez, barne funtzionamendu demokratiko eta parte-hartzailea, zuzendariak aukeratzeko prozedura eta kontrol berberak, organo kolegiatuen osaketa eta ahalmen igualak, inguruko jendarteak instalazioak erabiltzeko aukera eta baldintza berdinak, kontrol-mekanismo bakarrak guztientzat...
- 58.** Era berean, aginte publikoen ardura da ikastetxe guztietan hezkuntza finantzatzeko dirua zuzen erabiliko dela eta kontrol publiko gardena bermatzea; eta gauza bera familiei emandako diru-laguntzekin, hain zuzen ere, laguntzak emateko baldintzekiko erabateko errespetua ziurtatzeko. Egungo egoera ez da onargarria, aitzitik; kontrol sozial, ekonomiko eta administratiborako mekanismo espezifiko eta eraginkorrak ezarri behar dira. Izan ere, egoera irregularrak antzemanaz gero (eta egon badaude!), ikerketa ireki eta lege-iruzurrak topatzekotan itunak galtzea ekarri beharko luke. Hala ere, ardura ez da administrazioarena soilik, horretan hezkuntza-eragileek ere parte hartu behar dute (eta, agian, kanpoko auditore profesionalek ere bai), ebaluazio eta kontrol prozesuan bertan gutxieneko objetibotasuna eta gardentasuna bermatzeko. Hori lortze aldera eta finantziario berria ezarri

bitartean, derrigorrezkoak ez diren itunpeko ikasmailetak irakasleei ere ordainketa eskuordetua ezarri behar zaie. Irakasle ez diren langileentzako kasuan, hezkuntza itunetan horientzako ezarrita dagoen diru kantitatea ere administrazioak zuzenean ordaintzea ordainketa eskuordetua bidez aldarrikatzen jarraituko dugu.

- 59.** Ikastetxe pribatuetako patronaletatik askotan zabaltzen den mezu guztiz interesatu eta faltsuari ere aurre egin behar zaio gogor. Gehienetan, ez da egia, esaterako, ikaspostu bat merkeagoa denik itunpekoan publikoan baino, kalkuluak egitean iruzurrak egiten baitira. Askotan, aurrekontuetako haien partidaz gain, ez dira kontuan hartzen, esaterako, berariazko bestelako deialdien ondoriozko subentzioak eta diru-laguntzak, ezta hezkuntza administrazioaren zerbitzu komunak sare publikoaren partidetatik bakarrik ordaintzen direnik ere (Hezkuntza Sailak berak eta lurralde ordezkariak, Berritzeguneak edo ILZ, Hezkuntza Ikuskaritza, ISEI-IVEI, Irale, Eskola Kontseiluak, material didaktikoen argitalpenak, logopedia, CRI, etxez-etxeke zerbitzua, ospitaleko gelak, fisioterapeutak. Gizarte laguntzaileak), ikastetxe, irakasle eta ikasle guztien zerbitzura badaude ere. Edo, isildu egiten da herri txikiak eta hainbat auzotako hezkuntza-eskaintza (berez askoz garestiagoa) sare publikoak bakarrik bermatzen duela (bermatu behar du!). Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak, etorkinak, behartuenak, hau da, baliabide gehiago behar dituztenak ikastetxe publikoetan daude gehienbat eskolatuta (oso salbuespen gutxi salbu). Eta itunpeko ikastetxe batzuek publikoek izan ezin dituzten bestelako diru-sarrerak ere badituzte: kirol instalazioak, testuliburuak eta eskola-materialen argitalpenak, psikologoak eta kontsulting pedagogikoa, fundazioak, hezkuntza-zerbitzu osagarrien enpresa propioak, lokalen alokairuak (tabernak eta jatetxeak ere ipintzeko!)... baita, zer esanik ez, familiei kontzeptu anitzengatik kobratzen zaizkien kuotak ere (hainbatetan guztiz ilegalak).
- 60.** Beraz, hezkuntza-kalitatearen egiazko adierazleak bestelakoak dira ez da bakarrik irakasleen kontratazio- eta lan-baldintza eskasagoengatik nahiz gelako ikasle kopuru altuagoengatik, baizik eta aitortzen dutena baino nahiko diru gehiago (publikoa nahiz pribatua) jasotzen dutelako: batere susmagarria ez den Estatuko Eskola Kontseiluaren txosten baten arabera, eta krisian egon arren, 549 miloi euroko etekina lortu zuen irakaskuntza pribatuak 2012. urtean (horietatik 40,46 EAEn eta 2,95 Nafarroan).
- 61.** Itunpeko ikastetxeen finantzaketa-egoera korapilatsuak, ordea, ez gaitu itsutu behar eta nahastarazi patronalak finantzaketa areagotzeaz egin ohi dituen eskari bidegabeak eta ikastetxe horietako langileen aldarrikapen zuzenak. **STEE-EILAS**ek urte luzeak daramatza itunpeko langileen lan-baldintzak hobetzeko eta publikoko kideekin homologatzeko borrokan bat egiten.

62. Baina hezkuntza politika eta, are gehiago, jendarte politikaren ikuspegitik ikusita, bidegabeak dira guztiz egungo hezkuntza-administrazioak nonahi bultzatzen ari den hezkuntzaren pribatizazioa eta ikastetxe pribatuen nagusitasuna, hezkuntzaren funtsezko eskubide unibertsala hezkuntza-zerbitzu huts eta gutxi batzuen hezkuntza-negozio handia bilakatu nahi dutelako. Guztiz onartezinak dira, beraz, besteak beste, LOMCEren hezkuntza pribatuaren aldeko apustua, kontzertuen luzapena, funts-publikoen kontrolik eza, kanpoko erakunde eta enpresei zabaltzeko...

63. 2.5. Ikastetxeen autonomia, kontrol soziala, kudeaketa eta parte-hartze demokratikoa

64. Ikastetxeek beharrezkoa dute pedagogia- eta antolakuntza-autonomia, beren egoera zehazterara egokitzeko eta beren hezkuntza-proiektua behar bezala garatzeko. Dena den, ikastetxe guztiek bete behar dituzte gutxieneko baldintza batzuk, eta testuinguru horretan, ulertu behar da autonomia hori ikastetxe osoari dagokiola, banandu ezin den bertako hezkuntza-komunitateari, alegia, eta ez bertako inongo eragileri edo kolektibo bereziri. Bestalde, loteslea izan behar du hezkuntza-administrazioarentzat. Izan ere, hezkuntza-proiektuak onartu ondoren (betiere ebaluatu beharrekoak), proiektu horiek garatzeko behar beste giza-baliabide eta baliabide material hornitu beharko dizkie ikastetxeei.

65. Hezkuntza-sistemaren kontrolean eta kudeaketan parte-hartzea eta demokrazia bermatu eta hobetu behar dira, existitzen diren erakundeak (Eskola Kontseilu autonomikoak eta bilgunekoak, kasu) moldatuta eta mekanismo berriak sortuta. Erakunde horiek hezkuntza-sistemaren ebaluazioa, barrukoa zein kanpukoa, egiteko ardua izango lukete. Kontuak kontu, beti errespetatu beharko dira, eta bermatu, prozesuaren kontrola eta ebaluazioaren gutxieneko objektibotasuna, gardentasuna eta informazioaren eskuragarritasuna. Horren harira, Nafarroan ezinbestekoa izango litzateke erakunde publiko bat sortzea ebaluazioaren gardentasuna bermatzeko.

66. Bestalde, behar-beharrezkoa da parte-hartze zuzena, inplikazioa eta barne-demokraziaren kultura berreskuratzea bai ikastetxeen eguneroko jardunean, eta, oro har, hezkuntzan. Ikastetxeen kudeaketan parte-hartze zuzena izan behar lukete irakasleek, ikasleek, familiek eta irakasle ez diren langileek.

67. Ikastetxeetako zuzendaritza, pertsona baten kargua baino, talde-lan moduan ulertzen dugu. Talde-lan hori behar bezala onartu eta babesteko neurriak hartu behar dira. Ikastetxe publikoen kasuan, Zuzendaritza

Taldearen funtzio nagusietako bat administrazioaren aurrean eskola-komunitatea ordezkatzeta da.

- 68.** Horregatik guztiagatik, bada, gogor salatu behar dugu LOMCE, honetan ere gure eskola-ereduaren guztiz kontra baitoa. Legea bera egiteko prozedura antidemokratikoa izateaz gain (gutxienezko inongo kontsensurik gabe, hezkuntza-eragileen partehartzerik ez, gehiengo sozial zabalaren iritzia ginetik eta aurkako adierazpen erraldoiei muzin eginez, Madrillgo gobernuaren sustengatzen duen gehiengo parlamentario absolutu hutsaz soilik baliatuz), ikastetxeen barruan ere funtzionamendu erabat antidemokratikoa inposatzen delako: klaustroa eta eskola kontseiluaren erabakitze-ahalmenak guztiz desagerrarazi, kudeaketa enpresariala eta ekonomizista bilakatu, hezkuntza-komunitateko sektoreen presentzia ezabatu, aldebakarreko agintekeriaren hierarkia eta autokrazia ezarri... Eta ikastetxeen usuzko autonomia bakarrik aurreikusten du bikaintasuna eta goi-mailako espezializazioa adieraz ditzaketen eliteko ikastetxeetarako.

69. 2.6. Curriculum propioa

- 70.** Euskal Herrian berriazko curriculum bat behar dugu hezkuntza etapa guztietan, baita euskal jendartearen goi mailako ikasketa-beharrak aserko dituen gradu eta gradu-ondoko eskaintza ere. Curriculum propio horrek jendartean dagoen aniztasuna islatu beharko du. Horretarako, beharrezkoa da jendarte-eragileen eta eskola-komunitate osoaren ahalik eta parte-hartze beteena, ahalik eta adostasun handiena lortzea. Batu egin beharko ditu jakintza, kulturaren, historiaren zein gizakiaren dimentsio unibertsala, baita Euskal Herria biltzen duen marko linguistikoa, historikoa, geografikoa, soziala eta kulturala ere. Ingurua objektibotasunez aintzatesten duen curriculum beharko du izan, eta egungo errealitate politikoak eta administratiboak jaso. Hezkuntzak, curriculumaren bidez, ikasleen eta jendartearen beharrei erantzun behar die, eta horretarako euskal hezkuntza, Euskal Herriko historia eta gure kultura aintzat hartu behar dira derrigor.
- 71.** Curriculum ez da eduki akademiko hutsen inguruan eratu behar, aldiz, arreta nabarmena jarri behar zaio pertsona dimentsio gizatiar eta sozialaren funtsezko balioetan hezteari, eta balio horien aldeko jarrerak lantzeari. Hona hemen landu beharrekoak: diferentzia indibidual eta kolektiboak errespetatzea eta integratzea, bizikidetzarako heziketa, gatazkak bakean konpontzea, genero-berdintasuna, ingurunearekiko errespetua eta garapen jasagarria, giza-eskubideak eta eskubide zibilak nahiz sozialak errespe-

tatzea, elkartasuna eta justizia soziala, izaera kritikoa, parte-hartzearen aldeko kultura... Hori guztia muin-bakartasun printzipio metodologikotik abiatuta.

72. Inongo eztabaida eta adostasunik gabe, EAEn, aurreko PSEren gobernuak aldaketa esanguratsu batzuk txertatu zituen atera berriak ziren curriculum dekretuetan: euskarari ikasteko hizkuntza nagusiaren trataera ebastea eta gaztelerarekin parekatzea, Euskal Herria terminoa desagerraraztea eta Euskadiz ordezkatzeko obsesiboki, Espainiako Konstituzioaren erreferentziak zein balioak behin eta berriz errepikatzea eta eredugarritzat hartzea. Bistan da izaera sinbolikoa duten elementuak aldatzera eta elementu identitarioak ezartzera mugatu direla, inolako proposamen pedagogiko berririk egin gabe eta kritikatzeko zituzten akats beretan eroriz.
73. EAJren gobernu berriak berean utzi ditu horiek guztiak. Eta, esan bezala, oso jarrera epela adierazi du LOMCEn eta hark curriculumean ekarriko duen atzera pausu erreakzionario ikaragarriaren kontra. Horren ordez, bidea ireki die hezkuntzako oso eragile zehatz batzuei lidergoa har dezaten beste curriculum berri bat lantzeko prozesuan (Heziberri 2020 izeneko proiektuaren barruan). Berriz ere, ez dirudi Hezkuntza Saila prest dagoenik hau bezalako funtsezko gai batean ezinbestekoa den adostasun zabala bermatzeko, eta hasierako foroetatik at utzi ditu irakasle guztiak ordezkatzeko ditugun hezkuntza eragileok, sindikatuok alegia. Bestelako interes batzuk izan ditzaketen presio-lobby batzuen eskuetan utzita, beraz, ezer onik espero daiteke norabidea eta parte-hartzea aldatzen ez diren bitartean. Gainera, ez du ematen hau nahikoa izan daitekeenik ere LOMCEn aurre egiteko, prozesua defendatzeko argudiatutakoaren kontra, ezta Euskal Herriko Hezkuntzaren beharrezko lege berri bat adosteko ere.
74. Nafarroan, berriz, azken urte luzeotan, neurritz kanpokoak izan da, eta izaten ari da, euskal sena duen edozein testu, mapa edota ikurren zentsuratu nahia. Egoerak hobera egin barik txarrera egin du euskararen kalterako, HTB (Hizkuntzen Trataera Bateratua) lehen eta orain IIP (Ingelesa Ikasteko Programa) izeneko proiektu inposatuak eraginda.

75. 3. Euskal hezkuntza-sistemaren balioak

76. 3.1. Euskara eta eleaniztasuna

77. Euskal Herriko herritar guztiek hizkuntz eskubideak bermatuak izan behar dituzte euskara jakiteko eta erabiltzeko, hemengo hizkuntza propioa baita. Izan ere, EAeko Normalkuntza Legean hizkuntza propioa gisa dago jasoa, baita Nafarroako Vasuenceren Legean ere, lege hori garatzean adierazpen hori indargabetu eta xahutu egiten den arren. Halaber, euskara gaztelarekin batera hizkuntza ofiziala da EAEn, eta legezko egoera bera ematen da Nafarroako eremu euskaldunetan ere. Iparraldean, tamalez, ez du inolako aitortza legalik. Begi bistakoa da ez dela Euskal Herriko hizkuntza bakarra, bai, ordea, hemen ez beste inon mintzatzen den hizkuntza. Ez da propioa gure hizkuntza bakarra dugulako, geurea eta ez beste inongoa delako baizik.
78. Euskara Euskal Herriko kultur ondarearen ezaugarri oinarritzkoenetako bat da. Euskal hiztun izan ala ez, euskararen normalkuntzaren ardura euskal hiritargo osoari dagokio. Haren etorkizuna erakunde publikoei dagokie bereziki, haren iraupena eta hizkuntza eskubideak herritarrei bermatzeko ardura baitute. Hori dela eta, euskararentzat ofizialtasuna aldarrikatu beharra dago Euskal Herri osoan, gaztelera zein frantsesaren legezko estatus berean kokatuz. Bestalde, kohesio sozialerako eta integrazioerako tresna eraginkorra da euskara, eta horregatik beragatik Euskal Herriko biztanle guztiek izan beharko lukete euskara ikasteko modua. Euskal Herrian bizitzen ari den aldaketa sozial eta demografikoaren prozesuan hizkuntza kohesio elementu saihestezina da, hezkuntzaren bidez bermatu beharrekoa.
79. Nahiz eta azken 30 urteetan euskararen ezagutzan aurrerapen esanguratsua eman den, egoera zailean bizi da oraindik ere euskara, eta normalkuntzatik urrun gaude, gaztelaniarekiko edo frantsesarekiko parekotasunetik urruti. EAEn beste lurraldeetan baino egoera osasuntsuagoan badago ere, egoera larria da benetan Nafarroan eta, zer esanik ez, Iparraldean. Neurri positiboak hartu ezean, egungo mundu globalizatuan euskara desagertzeko arriskuan, “egoera zaurgarrian”, dago, eta horrela adierazi du UNESCOk.
80. Hizkuntzaren transmisioa, gaur egun, eskolaren lana da hein handi batean, baina eskolaren zereginetako bat bada ere, argi dago hori ez dela nahikoa. Ezin da utzi eskolaren bizkar eginkizun horren zama guztia, are gutxiago egungo komunikabide hegemonikoen eta teknologia berrien eragina kontuan harturik. Horregatik, jendartearen gainontzeko arloetan, euskararen

aldeko ekintzak eta estrategia positiboak bideratu behar dira. Hizkuntza politika koordinatu bat behar da euskal lurralde guztietan.

- 81.** Azken urteotan, euskararen erabilerak ez du aurrera egin ezagutzaren arloan emandako erritmoaren parean, eta alde handia dago euskararen ezagutzaren eta ohiko erabileraren artean. Une honetan, hizkuntzaren ezagutza hedatzea-ekin batera, euskara erabiltzea da erronkarik nagusia, eta, hori errazteko, norbanakoen konpromisoaz gain, erakunde publikoek abagune egokiak eskaini eta bultzatu behar dituzte esparru guztietan, esparru publikoan zein ekimen pribatukoetan, euskara “hizkuntza arrotz” gisa hartzen duten eremuak desagerrarazteko.
- 82.** Kontuan hartu behar dugu, dena den, logikoa dela erabilera-maila ez ailegatzea ezagutza mailaren parera. Izan ere, azken urteotan asko dira euskara bigarren hizkuntza gisa ikasi dutenak (eskola edota euskaltegien bidez) eta horietako batzuk bigarren hizkuntza horretan bere lehenengo hizkuntzan bezain eroso ez dira komunikatzen. Egun, euskaraz dakien populazioaren ia erdiarentzat euskara bigarren hizkuntza da. Beraz euskal hiztunen artean aniztasun handia dugu, profil askotariko euskaldunak ditugu: euskal elebidunak, elebidun orekatuak, erdal elebidunak, elebidun hartzaileak, sasi elebidunak... Euskaldun horien hizkuntza gaitasun erlatiboa, hizkuntza erabiltzeko erraztasuna, ohitura eta joera ez da berdina. Ondorioz, erabilera areagotzeko asmoz egiten diren interbentzioek aintzat hartu behar dute aniztasun hori eta lan ildo askotarikoak eta elkarren osagarriak martxan jarri. Batzuegan hizkuntza jokabide asertiboak eta integratzaileak sustatuz eta besteengan hizkuntza “berria” ausardiaz erabiltzeko joera lagunduz.
- 83.** Bide horretan, Europako Hizkuntza Gutxituen Batzordeak hainbat gomen-dio luzatu die EAEko zein Nafarroako gobernuei, euren hizkuntza politikan neurri trinkoagoak har ditzaten. Dena den, ardura hori Espainiako zein Frantziako estatuei ere badagokie; eta ez da ahaztu behar Hizkuntza Gutxituen Gutun Europarra sinatu zuela Espainiako Estatuak 1992an.
- 84.** Euskal jendarteak, oro har, eskakizun argia egin dio eskolari: ikasle guztiek bi hizkuntza ofizialak ondo jakitea derrigorrezko irakaskuntza amaitutakoan, eta, horrela, euskararen ezagutza eta erabilera belaunaldi berrietan bermatzea. Eskakizun horrek jendartean duen adostasun zabalaren isla dira azken urteotako matrikulazio datuak, bai EAEn non D ereduaren aldeko hautua gero eta nabarmenagoa den, baita D ereduaren sare publikoan eskatzeko aukera duten Nafarroako eskualdeetan (euskaldunean eta mistoan), non populazioaren zati handi batek eredu horren alde egiten duen, sasi askoren gainetik hautua bada ere. Gainera, eskakizun hori islatuta gelditu da EAEko hainbat legetan (82ko Normalizazio Legea, 93ko Eskola Publikoarena).

- 85.** Orain arteko lorpenei dagokionez, ebaluazio guztiek argi erakusten dutenez, eskakizun hori bermatuta dago gaztelerazko gaitasunari dagokionez. Euskarazko gaitasunean dugu erronka, zenbait ikaslek ez baitute behar besteko gaitasuna garatzen. Ebaluazioek argi erakusten dutenez, euskara erabiltzeko aukera handiagoak behar dituzte ikasleek (eskolan ikasteko jardueretan eta pertsonarteko harremanetan, edota eguneroko inguru hurbileko familia- eta jendarte-harremanetan) euskarazko gaitasun nahikoa garatzeko. Ondorioz, ikasle guztiek euskarazko gaitasun nahikoa bermatze aldera, ezinbestekoa da euskara izatea eskolako jardueren hizkuntza nagusia eta integrazio hizkuntza eskolako zein eskolaz kanpoko sozializazio-esparru esanguratsuenetan.
- 86.** Horri dagokionez, ebaluaziorako irizpide zehatzak ezarri beharko dira, eta finkatu derrigorrezko irakaskuntzaren bukaeran ikasle guztiek eskuratu beharreko gaitasun linguistikoa. Halaber, ikastetxe guztietako plantilletako langileek (irakasle nahiz ez irakasle izan) elebidunak izan behar dute. Eta behar diren bitartekoak jarri beharko dira langileok euskaraz behar bezala gaitzeko; baita ere irakasleen, material didaktikoen eta gainerako langileen hizkuntza eguneratzea etengabea eta egokia izan dadin.
- 87.** Hizkuntza-hezkuntzaren gaiak erabilera politiko partidista izan du, batzuen eta besteen interesen arabera, eta, behin baino gehiagotan, era lotsagabe eta lotsagarrian izan ere. Interes politiko eta mediatiko nabarmenen harira eginiko adierazpenak onartezinak dira, eta kalte handia egiten diote hizkuntzari berari eta elkarbizitzari. Hezkuntza eremuaren barruan ere saiakera batzuk egon dira euskara ikastetxe gutxi batzuek patrimonializatzeko, guztiz gaindituta dagoen garai bateko beren ibilbidea etengabe aldarrikatuz eta urte luzeotan euskal eskola publikoarenari, aldiz, muzin eginez. Jendartearen euskalduntzean ahalegin handiak egin dituzte ikastetxe gehienek, nahiko abiapuntu ezberdinetatik, eta euskal eskola publikoak bere gain hartu du bereziki ikasle behartuenak (hezkuntza premia bereziak dituztenak, maila sozioekonomiko baxukoak jatorriz erdaldunak eta etorkinak, batez ere) euskalduntzeko erronka. Horrelako eztabaidetan, beraz, helburu eta irizpide pedagogikoak gailendu behar dira, eta edozein manipulazio politiko ala interesatu ekidin.
- 88.** Alde batetik, EAeko erakunde publikoek bermatu beharko lukete ikasle guztiek eskolaldia bukatzean bi hizkuntza ofizialetan maila nahikoa lortzea, ondorengo ikasketak hizkuntza batean zein bestean jarraitu ahal izateko.
- 89.** Onartezina deritzogu milaka ikaslek legeek euskaraz ezarritako gutxienekoa ere ez lortzeari. Hizkuntza erduek segregatzen dituzte ikasleak, eta ez dute bermatzen geroan ikasle horiek ikasketak edota lana euskaraz

egin ahal izatea. Eta kontuan hartuta kohesio soziala eta berdintasuna sustatu beharko lukeela hezkuntza-sistemak, jatorri geografikoagatik edo maila sozialagatik inor diskriminatuko ez duen eskola integratzailea nahi dugu, aniztasuna aberastasun moduan biziko duena eta guztion aukerak berdintasunean (euskararen kasuan ere bai) bideratuko dituen. Hori guztia dela eta, beharrezkotzat jotzen dugu Hizkuntza Ereduen Sistema gaindituko duen marko berria eratzea, euskara ikas-hizkuntza nagusia izanik.

90. Nafarroari buruz, lehenik eta behin esan behar da Vasueneren Legeak zituen helburuak (euskara babestea, errekuiperatzea eta garatzea) ez direla bete, eta ez direla bermatu herritarrek hizkuntza ezagutzeko eta erabiltzeko dituzten eskubideak. UPNko gobernuen hizkuntza politika alienazioan eta auto-ukazioan oinarritu da. Barne aniztasuna eta aberastasuna ukatu eta “nafarra” izateko era bakarra eta monolitikoa inposatzen saiatu da. Horregatik, Nafarroa osoan euskaraz ikasteko eskubidea eskatu behar dugu, eta aldarrikatu bai legezko markoaren aldaketa, bai garapen arauemaile egokia.
91. Bestalde, atzerriko hizkuntzaren irakaspenera indartzeari ondo irizten diogu, baina beti ere bi hizkuntza ofizialen ezagutza bermaturik dagoenean: ezin da erabili atzerriko hizkuntza euskara eta euskarazko irakaskuntza ahultzeko. Gainera, atzerriko hizkuntzaren inguruan egiten diren esperientzien ebaluazio zehatzak behar ditugu, baliabideak modurik egokienean eta eraginkorrean erabiltzeko.
92. Azken urteotan elebitasunaz ez ezik eleaniztasunaz ere hitz egiten hasi gara. Atzerriko hizkuntzan (edo hizkuntzetan) ikasleek lortu behar duten mailarekiko espektatibak gero eta altuagoak dira eta ingelesaren ezagutza altua bermatze aldera “hizkuntza-eredu berriak” proposatzen dizkigute hezkuntza arduradunek (“HTB” edo “IIP” Nafarroan eta “marko hirueleduna” EAEn). Proposamen horien atzean euskarazko irakaskuntza hedatzeari oztopoak jartzeko asmo ezkutua dagoela aipatu du hainbatek, eta Nafarroako Lehendakariak berak hala aitortu du orain dela gutxi. Eta horri gehituta, globalizazioa, neoliberalismoa eta merkatuekiko menpekotasuna ere antzeman daitezke atzerriko hizkuntzak (ingeleza bereziki) lehenestearen aldeko hainbat diskurtsoren atzean.
93. Dena den, egokia iruditzen zaigu ikasleak hiru (edo lau) hizkuntzatan gaitzeko helburua. Argi dago XXI mendeko hiritarrentzat beharrezkoa izango dela hainbat hizkuntza jakitea, izan bere inguru hurbilekoak edo nazioartekoak.

94. Kasu honetan ere korapiloa ez dago asmoetan eta helburuetan, hizkuntza-helburu horiek lortzeko eman beharreko hezkuntza-erantzunean baizik. Eta erantzun hori ondo definitzea izango da gakoa.
95. Horri dagokionez, hasteko, esan dezagun ezin direla kontzeptuak nahasi: ez direla gauza bera hezkuntza elebiduna (edo eleaniztuna) eta hezkuntza elebiduntzailea (eleaniztuntzailea). Gure arteko eskarmentuak ondo erakusten digunez, euskarazko eta gaztelerazko gaitasunik altuena bermatu duen hizkuntza ereduak ez da izan bi hizkuntza horiek irakas-hizkuntza bezala erabili duena, baizik eta irakaskuntza jarduera (batez ere) euskaraz gauzatu duena. Hemengo esperientziek eta beste hainbat herritakoek iradokitzen digutenez, ikasle guztiak bizpahiru hizkuntzatan ezagutza nahikoa garatzen dutela bermatzeko bidea ez da bizpahiru hizkuntza horiei pareko trataera ematea eskolan (eta curriculumean), kontuan hartu gabe jendartean (bai orokorrean zein ikasleen ohiko ingurunean) duten presentzia eta estatusa. Ez, helburu horiek lortze aldera eskolak eginkizun konpentsatzailea bete behar du eta arreta berezia eskaini hizkuntza minorizatuari.
96. Hori guztia kontuan hartuta, aldarrikatu behar dugu hiruzpalau hizkuntza ondo ezagutzeko asmorako abiapunturik egokiena, gurean, elebiduntasuna bermatzea dela; hots, ikasle guztiak euskara ondo ikasten dutela ziurtatzea. Batetik, atzerriko hizkuntzaren ikaskuntzan gehiago aurreratzen dutelako hemengo bi hizkuntzetan garapen maila ona duten ikasteak (esperientziak eta ikerketek erakutsi digutenez). Eta, bestetik, jendarte kohesionatua eraikitzeke ikasle guztiak komunitateko bi hizkuntzetan jarduteko gai izango direla ziurtatzea ezinbestekoa delako, gauzak horrela direnean gauzatu ahal izango da norberak nahi duen hizkuntzan aritzeko aukera eta orduan bakarrik egongo dira bermatuta hiritar guztien hizkuntza eskubideak.
97. Euskara borroka politikotik aldentzea eta babestea lortu beharko litzateke, Euskal Herriaren ondarea baita. Denon hizkuntza dela jabetzen garenean, eta ez bata bestearen aurka erabiltzeko tresna, orduan izango du euskarak bideratua bere geroa. Zalantzarik ez dago herritarron sostengurik gabe ezinezkoa izango dela euskararen normalizazioan aurrera egitea. Aurrera egiteko, ezinbestekoa da jendartearen aldeko borondatea aintzat hartzea eta atxikimendu gehiago biltzen jarraitzea, orain arte beharrezkotzat hartu ez dutenak erakarrit. Baina helburu horrekin bat egiten ez duen sektore politiko eta sozial bat ere badago, euskararen normalizazio prozesuarekin oso erasotzailea izan dena. Euskararekiko tolerantzia eta itxurazko errespetua aldarrikatuz, benetako jendarte elebiduna eraikitzeke orduan oztopo praktikoak ipintzen dituen eta zinismoz jokutzen ari dena. Jendarte osoak bereganatu behar du ezinezkoa dela jendarte elebiduna eraikitzea, hiritar elebidunik gabe.

- 98.** Horren harira, bitxia da azken boladan euskara inposatu egiten dela salatzzen entzutea, oraindik ere hizkuntza eskubideak hainbat esparrutan bermatuta ez daudenean. Aitzitik, inposaketa jasaten duena euskaraz bizitzeko edota ikasteko aukerarik ez duena da. Hemen hizkuntzaren bat arriskuan badago, hizkuntza hori euskara da, eta gainerako guztia bazterrak nahasteko gogoia besterik ez da.
- 99.** Euskara berdintasun egoeran behar dugu eta gaur egun ez da horrela. Izan ere, edonork antzeman dezake euskarak ez duela gaztelaren egoera bera EAEn, ezta Nafarroan ere; are gutxiago Iparraldean, frantsesarekin alderatuta. Beraz, euskararen aldeko itxurazko aldarrikapenen aurrean, koherentzia praktikoa da zenbaitek erakutsi behar duena Euskal Herriko lurraldeetan, urrats argiak emanez, euskara benetako berdintasun egoeran koka dadin gaztelarekiko zein frantsesarekiko. Izan ere, gaztelaniaren eta frantsesaren ezagutza eta erabilera soziala guztiz ziurtatuta dagoenez, euskararen aldeko neurri positiboak eta ahalegin bereziak areagotu egin behar dira erakunde publikoen aldetik, hau da, euskarak lehentasunezko trataera behar du hezkuntzan zein jendartearen, egoera ahulenean dago eta.
- 100.** Azken batean, jendartearen gehiengoak euskararen alde behin eta berriro azaldu duen borondatea hartu beharko litzateke oinarritzat. Hainbat adierazleren arabera, euskararen aurkako joera argia adierazten dutenak gutxiengo soziologikoa dira herrialde guztietan; aldiz, gehiengo soziologikoa euskararen aldekoa da eta euskararen aldeko joera soziologikoa argia da. Horretan ere, jendartearen gehiengoak adierazitakoa zenbait alderdi politikoren nahiaren aurretik doa.
- 101.** Horregatik, hain zuzen ere, onartezina da guztiz gobernu zentralaren eskutik datorkigun LOMCE. Hasiera-hasieratik, agerian geratu da haren ardatz nagusietako bat dela gaztelania lehenestea ikaste-hizkuntza bakar gisa erkidego autonomo eta eskola guztietan, erkidego autonomoen lege eskuduntza guztien gainetik lehenetsi ere. Goian aipatutako gidoi politiko eta neoliberalari helduz, ingelesari ere garrantzi askoz handiagoa ematen zaio euskarari baino, eta gaztelania ez den beste edozein hizkuntzaren murgiltze programak bertan behera uzten ditu, ilegal bihurtuz. Gaztelaniaz ikasteko beren seme-alaben ustezko eskubidea aldarrikatuz, guraso gutxi batzuek bultzaturiko posizio ultra bere egiten du lege horrek, nazioarte mailan aitortuta eta babestuta dauden gizakion eta herrien hizkuntza eskubideak erabat urratuz. Gure jendarteak euskaraz ikastea erabaki du aspaldian, eta funtsezko eskubide hori errespetatu beharra dago ezinbestean kanpotik inposatutako lege guztien gainetik.

102. 3.2. Aukera-berdintasuna: inklusibitatea, aniztasuna, berdintasuna, konpentsazioa eta elkartasuna

- 103.** Gure jendartean, gizabanakoen aniztasunari aniztasuna sozial gero eta ageriagoa gehitu behar diogu. Hezkuntza-sistemak, oro har, eta ikastetxe bakoitzak bere aldetik, bermatu egin behar dute desberdintasun pertsonalak eta kulturalak errespetatzea, eta alde sozio-ekonomikoak eta bestelakoak minimizatu egingo direla eta behar bezala konpentsatuko direla. Horretarako, eta hezkuntza komunitate bakoitzaren premia zehatzen arabera, beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak jarri behar dira ikastetxeen eskuetan, erronka horri aurre egiteko. Ikasle guztiek, jatorria edo beste edozein inguru pertsonal edo sozial kontuan hartu gabe, aukera berberak izan behar dituzte oinarritzko gaitasunak bereganatzeko.
- 104.** Ikastetxe guztiek bermatu behar dute pluraltasuna eta aniztasuna egoki eta zuzen tratatuko direla, hezkuntza proiektuetan printzipio hauek jarraituz: jatorri-desberdintasunaren aurrean, aukera-berdintasuna; desberdintasun sozialen edo pertsonalen (ezgaitasun fisikoak, psikikoak zein sententzialak) aurrean, konpentsazioa; indibidualismoaren aurrean, elkartasuna; lehiakortasunaren aurrean, lankidetzeta eta talde-lana; bereizkeriaren aurrean, ekitatea; lanbide-trebakuntza hutsaren aurrean, pertsonaren garapen integrala; homogeneizazio ideologikoaren aurrean, pentsamendu kritikoa; familia-eredu bakarraren aurrean, dibertsitatea; sexismoaren aurrean, hezkidetzeta; inposatutako heteronormatibitatearen aurrean, aukera afektibo eta sexual guztien presentzia eta errespetua; dogma erlijiosoen aurrean, etika zibila eta laikoa; ideario segregatzaileen aurrean, funtsezko eskubideen bermeak; indibidualismoaren aurrean, elkartasuna...
- 105.** Bizikidetzeta eta kohesio soziala hezkuntzaren helburu izanik, ikasleak onartzeko orduan, ziurtatu behar da ez dela inongo bereizkeriarik egingo. Gauza bera bermatu behar da irakasleak eta ikastetxeko gainerako langileak kontratatzeke orduan, kudeaketan eta zuzendaritzan, adierazpen askatasunean, ikastetxearen ideario eta hezkuntza-proiektuetan, ideien eta balioen transmisioan...
- 106.** Xede horretarako, aurreneko baldintzetako bat honako hau izango da: matrikulazio plangintza orekatua egitea edonolako hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzat, alegia, inguru bereko ikastetxe guztiek, publikoek zein itunpekoek, antzeko portzentajeak edukitzea, eta ikasle horien ikastetxe aldaketei jarraipen zorrotza egitea.
- 107.** Bestalde, osagarriak diren bestelako zerbitzuak eskaintzeko orduan (garraioa, jantokia, jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak) ikasle

guztiek aukera berak izatea bermatu behar da, doakotasunaren edo dirulaguntzen bidez. Itunpeko ikastetxeetako kuotek familiak eta ikasleak segregatzen dituzte, are gehiago gaur bezalako krisialdi ekonomiko gorraren egoeran, hezkuntza jasotzeagatikoek ez ezik (bide batez, erabat ilegalak!), gainerako zerbitzu osagarriak ordaintzekoek ere: azken finean, batzuek oso era interesatuan argudiatutako familien ustezko eskubide sakrosantua ikastetxea aukeratzeko dirua daukatenen kasuan baino ez da gauzatzen praktikan.

- 108.** Horren guztiaren kontra, LOMCEren bikaintasunaren planteamenduak azaltzen dira berriz ere. Ekitatea albo batera utzita, eta jatorrizko errealitate guztiz ezberdinak ahaztuz, esfortzu hutsaren ideari eman nahi zaio balio neutroa (bidenabar, balio erabat faltsua), horretan oinarrituz hezkuntza elitista eta norberaren ahalmen ekonomikoaren arabera bultzatzeko gero. Hori aplikatuz gero, galdu egingo lirake hezkuntzaren funtzio sozial nagusiak (aukera-berdintasuna, jatorrizko ezberdintasunen konpentsazioa, kohesio soziala, integrazioa eta inklusibitatea, elkartasuna, aniztasunaren trataera...), eskolaren antzinako eredura itzuliz: balio pertsonal nahiz sozialik gabeko instituzioa, eduki guztiz akademikoak bakarrik transmititu eta baloratzen dituen, ezagutzak eta ondoriozko kalifikazioen arabera ikasleak sailkatzen dituen, azterketetan eta errebalidetan oinarritutako oztopen lasterketa baino ez dena, tituluak sari moduan indartsuenei soilik ematen dizkiena...

109. 3.3. Kulturartekotasuna

- 110.** 2006ko apirilaren batean egindako Kontseilu Nazionalak ikasle etorkinen eskolatzearen aurrean **STEE-EILAS**en proposamenak biltzen dituen txostena onartu zuen. Nahiz eta azken bi urteetan, krisi ekonomikoa dela-eta kopurua ez handitu, txosten horretako proposamenak baliagarriak dira oraindik.
- 111.** Kulturartekotasun hitzak bi esanahi hartu ditu hezkuntza esparruan: alde batetik, kultur anitza den mundu batean bizitzen ikasteko prestakuntza eta, beste aldetik, eskolan familia etorkinei egiten zaien eskolatzeprotokoloa eta trataera. Izan ere, kulturarteko hezkuntzaren beharra kultur-aniztasunaren ondorioz sortzen da. Ikasle etorkinek urrutiko hizkuntzak eta kulturak ekarri dituzte eta eskolak egokiro erantzun behar dio aniztasun horri, jatorri guztietako haur eta gazteak integartzeko eta sozializatzeko. Aniztasun kulturala betidanik egon arren, nabarmendu egin da beste herrialde batzuetatik etorri diren familien presentziarekin.

112. Egun, Kulturarteko hezkuntza proiektu politikoa da eta honako ezaugarriak ditu: familia guztien kulturek tokia dutela ziurtatzea; aniztasun kulturala baloretzat hartzea baina aldi berean begirada zorrotza izatea kultura guztiekiko, norberarenarekikoa barne; eta bazterketa, arrazismo eta desberdintasunen kontra borrokatzea.
113. Gure jendartea asko aldatu da azken 30 urteotan, eta, ondorioz, gure ikastetxeak ere bai. Ikasle guztiak, bertoko edo kanpoko familien seme-alabak izan, XXI. mendeko jendartean bizitzeko prestatu behar ditu eskolak. Dagoeneko, hainbat gela jendartearen erakusgarri dira, bertan kultur jatorri askotariko ikasleak daude eta. Gela horiek toki paregabeak dira elkarren arteko ezagutza bultzatzeko, betiere baldintza batzuk betetzen badira, berdinaren arteko harremana era naturalean ematen baita bertan.
114. Ikastetxeetan lan handia egin daitekeenez jendarte kohesionatua lortze aldera, oso garrantzitsua da kulturartekotasuna ikasle guztiak eta ikastetxe guztietan lantzea hainbat arlotan: curriculumean, tutoretzan, hezkuntza-proiektuan, ikastetxearen egiturari, barne araudian, bizikidetzaren planean, harrera protokoloetan, eskola-jaietan, jarduera osagarrietan...
115. Horregatik, ezinbestekoa da ikastetxeetan eta irakasle eskoletan kulturartekotasunari buruzko prestakuntza ematea, eta, horrez gain, berariazko prestakuntza hizkuntzen irakaskuntzaren didaktikaren esparruan.
116. Aldi berean, inbertsio handia egin behar da etorkinen seme-alabak egoki eskolatu daitezen. Baliabideak behar dira harrera egokia emateko eta eskolatze-ibilbidea egokiro diseinatzeko.
117. Ikastetxeetan antolaketa oso zurruna da, ordutegiaren aldetik, espezialistak direla eta... Ikasle asko epe kanpo heltzen dira eta eskolak ezin die erantzun egokia eman. Baliabideak eta lan-taldeak egokitu egin behar dira lirarteke aniztasunari aurre egoki egiteko; familiei denbora gehiago eskainiz integrazio prozesuan laguntzeko; gertuko tutorizazioak egiteko, edota jendarte-laguntzaileekin bilerak egiteko.
118. Kanpotik iristen diren pertsonak zenbait auzo edo herritan kontzentratzen dira, eta horien seme-alabek eredu eta ikastetxe jakinetan ikasten dute. Ikasleek bere auzoan matrikulatu behar dute eta auzoko ikastetxe horiek baliabide gehiago izan behar dituzte, baina neurriak hartu behar dira kontzentrazio artifizialak ekiditeko. Edonola ere, hezkuntza administrazioek ikasle etorkinen eskolatze orekatua sustatu behar dute funts publiko horien bidez ikastetxe mota guztietan. Izan ere, ikasle etorkinen kontzentrazio handienak sare publikoan, Nafarroan G eremuan eta EAEn A eremuan,

gertatzen dira zenbait arrazoi direla medio: eskola-mapa, matrikulazio prozesuak, ikastetxe pribatuen ideario segregatzaileak, itunpeko ikastetxeetako zerbitzuen prezio altua edota praktika txarrak. Ikastetxe guztiek, publikoek zein itunpekoek, betebeharrak izan behar dituzte, eta horien jarraipen zorrotza egitea eta berme zehatzak hezkuntza administrazioei exijitu behar zaizkie.

- 119.** Ereduen sistemak dirauen bitartean, Lehen Hezkuntzara iristen diren ikasleak euskal ereduetan eskolatu beharko lirateke, ikasketak arrakastaz amaitzeko aukera izan baitezakete. Bigarren Hezkuntzara heltzen diren ikasleen kasuan, eskola-arrakasta lortzea izan behar da helburua, eta horretarako, ingurunean soziologikoki nagusia den hizkuntzari eman behar zaio lehentasuna, euskararen ezagutza funtzionala lantzearekin batera. Horregatik, exentzioak erraztu beharrean administrazioek ikastetxeei beharrezkoak diren baliabideak eskaini beharko lizkiekete. Edozein kasutan, euskararen irakaskuntza bermatuta izango dute eta beharrezkoak diren curriculum egokitzapenak egingo dira. Horregatik, administrazioak ikastetxeei beharrezkoak diren baliabideak eskaini beharko lizkieke. Horrez gain, hainbat ikastetxetan ama-hizkuntza sustatzeko edo mantentzeko programak abiarazi behar dira.
- 120.** Baina kulturartekotasunaren erronka ez dagokio soilik hizkuntzari, bai-zik eta eskola osoari. Inklusibitatearen funtsezko printzipiotik abiatuz, ikastetxe guztietan hainbat egitura eta ohitura aldatu beharra dago barne araudian, curriculumetan, harrera planetan, eguneroko bizitzan... mota eta jatorri guztietako ikasleen integrazioa (eta haien familiena) egiazkoa izan dadin, justua, inklusiboa, asimilazio-saiakera huts bihurtu ez dadin, benetako kohesio sozialari lagun diezaion. Eta honetan berriz ere talka egiten dugu homogeneizazio kulturala, eurozentrismoa, pentsamendu bakarra, ikasleen sailkapena, egoera pertsonal eta sozial anitzen ukapena, munduaren ikuspegi erabat partziala eta antzekoak bultzatzen dituzten LOMCE bezalako proiektuekin.

121. 3.4. Hezkidetzak: genero-berdintasuna

- 122.** Hezkidetzak ezinbesteko tresna da eskola ez sexista eta pertsonen arteko parekotasuna lortzeko. Parekotasunak errespetatu egin behar ditu aniztasuna eta berdinen arteko diferentziak. Hau da, parekotasuna edo berdintasuna harremanetan eta eskubideetan garatu behar ditu gure hezkuntzak.
- 123.** Hezkidetzak, hezkuntza-sistema osoaren barruan, ardatza izan behar du, tresna baliotsua baita oraindik nagusi den ideologia patriarkala

gure jendartetik behin betiko desagerrarazteko eta balio pertsonalak, familiarrak eta kolektiboak aldatzen laguntzeko.

124. Aipatutako helburuekin zerikusia duten lege ekimenak eskola eremuan ere bete egingo direla bermatu behar da. Besteak beste, EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea, NFEko Berdintasunerako Legea eta Bortizkeria Sexistaren kontrako Foru Legea. Hezkuntza arloa garatzen duen legedi orok behar du hezkidetzaren aldeko konpromiso zuzena, eta lege eta dekretu guztiek zehaztu beharko lukete ardatz pedagogiko hau besteen parean.
125. EAEn zein Nafarroan, Hezkuntza Sailek ez dute interes handirik erakutsi gai honetaz. Nafarroan, 2009-2011n Hezkuntzan martxan jarri zen Berdintasuna Plana ez zen inoiz ebaluatu eta murrizketek baliabiderik gabe utzi ditu zenbait ikastetxetan aurrera eramaten ziren planak. EAEn, berriz, ikasturte honetan aurkeztu den planak, teorikoki zuzena bada ere, ezerezean gelditzeko arrisku handia dauka baliabiderik gabe ezartzen bada.
126. Hezkidetzak ezin da izan hautazkoa, derrigorrezkoa baizik, eta era planifikatua gauzatu behar da ikastetxe guztietan. Horretarako, ezinbestekoa da, batetik, irakasleak prestatzea Unibertsitateko Irakasle eskolan, Bigarren Hezkuntzako masterrean zein GARATU edo ILZ bitartez, irakasleak baitira ezkutuko curriculumaren transmititzaileak, eta bestetik, ikastetxeetan Berdintasun Plana ezartzea. Hori guztia aurrera eramateko, beharrezkoak ditugu baliabide iraunkorrak.
127. Hezkidetzak elementu zentrala izan behar du ikastetxeetako balioetan (adibideren bat) eta barne-antolaketan ere bai (arduren banaketa, parte hartzea...).
128. Curriculum esplizitua diseinatzeko garaian, zeregin hauek izan behar dira kontuan: jendarteak erreproduzitzen dituen androzentrismoa eta sexismoa zalantzan jarri aniztasun sexuala aitortuz eta errespetatuz, emakumeek kulturari eta historiari egindako ekarpenak agerian jarri eta baloratu, hizkuntzaren erabilpen sexista baztertu, eta, estereotipoak gaindituz, pertsona integralak izateko aukerak bultzatu.
129. Zoritxarrez, estadistikek erakusten dute indarkeria matxista areagotzen ari dela gazteen artean. Hezkidetzak indarkeria sexista aurreikusi, antzeman, esku hartu eta ekiditeko tresna izan behar da, neska-mutilen arteko desberdintasunak konpentsatu eta parekotasuna lortzeko.
130. Nahiz eta LOMCEk aipatu indarkeriaren aurka jo behar dela ez du ezer zehatzik proposatzen. Aldiz, Hiritartasun arloa kenduta, desagertu egin da

currikulumentik hainbat balio eta balore lantzeko aukera. Era berean, erlijioari pisu handiagoa ematearekin batera nazioarte mailan adostutako giza eskubide batzuen kontrako jarrera sortzeko arrisku handia egon daiteke: homosexualitatea, abortua, dibortzioa...

- 131.** Jendarte ez diskriminatzailea lortzeko, beharrezkoa dugu, gainera, aniztasun sexuala ikusgai egitearen aldeko ekintzak gauzatzea, bai hezkuntza arloan baita jendarte osoan ere. Kontuan izan behar dugu lesbohomotransfobia hezkuntza komunitate osoak pairatzen duela. Batzuk jendarteak sortutako genero identitateekin bat ez datozelako, eta besteak, jendarteak sortutako genero identitateekin bat datozela adierazteko.
- 132.** Beste alde batetik, EAEn zein Nafarroan badago oraindik ikastetxerik, non umeak “sexuaren arabera” bereizten dituzten. Gizonen eta emakumeen artean aukera berbera ziurtatuko duen hezkuntza defendatzen dugu. Sexuagatiko segregazioa egitearen aurka gaude, hezkuntza-aukerarik onena bi sexuetako haur eta gazteak ikasgela berean heztea baita, bizikidetasunean bizitzen ikasteko, elkar errespetatzen ikasteko, eta emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak onartzen eta positiboki baloratzen ikasteko. Gure hezkuntza sisteman sexu-bereizketa onartezina baldin bada, are onartezinagoa izango da guztion diruarekin finantzatua izatea.
- 133.** Gaur egun, ikasleak sexuen arabera bereizten dituzten ikastetxeak diruz ez hornitzeko tresna legalak dauden arren, hezkuntza-itunak arautzen dituzten dekretuek ezinbestean jaso beharko lukete hezkidetzan oinarritutako hezkuntza proiektuek soilik jaso dezaketela diru-laguntza publikoa. Baina horren kontrako bidea hartzen du, berriz ere, LOMCE legeak: azken urteotan izandako sententzi judizial batzuen kontra -horiek gainditzeko hain zuzen ere-, neska-mutilak banatzen dituzten oso ideologia eta sinismen erlijioso konkretuetako ikastetxeen finantzaketa publikoa blindatzen du, aurreko lege guztiei iruzur eginez eta berdintasuna eta funtsezko giza eskubideak urratuz eskolan. Horrez gain, genero-berdintasuna sustatzen duten helburuak, jarduerak eta edukiak curriculum ofizialetatik desagerarazten ditu. Jokabide onartezin horiek ezin ditugu inolaz ere onartu, eta gure hezkuntza arduradunei exijitu egin behar diegu horiek guztiak ez aplikatzeko.

134. 3.5. Elkarbizitzarako eta bakerako hezkuntza

- 135.** Elkarbizitza giroak ezinbesteko oinarria izan behar du ikastetxearen egunerokoan, baita jendartearenean ere, elkarrekin bizi, elkarrekin hazi eta elkarrekin ikasteko. Ildo honetan, giza-eskubideen aitortza eta bakerako

kultura elkarbizitzaren oinarrizko baldintzak baino ez dira. Horregatik, elkarbizitzarako eta bakerako hezkuntzari bere tokia eman behar zaio hezkuntza-sistema osoan, eta benetako zehar-lerro bilakatu. Baina elkarrekiko errespetua eta elkarbizitza egokia lortzea ez da irakasleonek lana soilik, eskola-komunitate osoarena baizik. Irakasle, langile, ikasle, guraso eta inguruko guztiok gara eragile eta hartzaile eskolako elkarbizitzan, eta guztion lankidetzan eta elkartasuna behar dira. Elkarbizitzarako plangintzak ezinbesteko tresna izan behar du; horretarako, eta elkarbizitzak merezi duen ganoraz lantzeko, beharrezkoa da ikastetxeek horretarako dituzten baliabideak nahikoak eta egonkorrak izatea.

136. Eskolak elkartasuna, senidetasuna, enpatia, bestearen minarekin bat egitea eta bitartekotza bezalako balioak sustatu behar ditu, gatazkak konpontzeko indarkeriaren bidea baztertuz eta arbuiatuz; mota guztietako gatazken errealitatea aintzat hartu arren, berorien konponbide baketsua bultzatuz eta helburuak bitartekoak justifikatzen dituelako ideia kuestionatuz.
137. Proposatzen dugun hezkuntza sisteman, horiekin batera, nabarmendu behar ditugu giza-eskubideen ezagutza, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala oinarritzat hartuta, horien inguruko hausnarketa eta haren defentsa.
138. Biktimek hezkuntza-sisteman izan behar duten trataerak aipamen berezia merezi du, azken boladan hika-mika eta erabilpen politiko ugari gertatu baitira horren inguruan. Bestalde, euskal gatazkak eragindako biktimen gaia gure jendartean behar bezala gainditu gabe dagoen erronka dela jakinik, nekez eska dakioke eskolari era egokian bideratzea. Nolanahi ere, edozein plan gauzatu aurretik, premiazkoa da zenbait irizpide adostea eta argi finkatzea, baita sentsibilitate, errealitate, iritzi eta eragile guztiak kon-tuan hartzea ere.
139. **STEE-EILAS**en iritiz, biktimei eman behar zaien tratuak adostasun zabala izan behar du jendartean zein hezkuntza-komunitatean, eta bazterkeriarik gabe garatu behar da, “ahaztutako” biktima berriak sortu nahi ez baditugu, behintzat. Horrez gain, gaia ikuspegi pedagogikotik garatu behar da, eta ihes egin behar da doktrinamendu politikotik eta edozein manipulaziotik.
140. Lehenik eta behin, onartu behar da biktimak askotarikoak direla, askotariko jatorria dutela, eta haien saminak alde anitz dituela. Aintzat hartu behar dira ETArek indarkeriak eragindako biktimak (hildakoak, zaurituak eta mehatxatuak), estatuaren indarkeriak azken 30 urteotan eragindakoak (hildakoak, torturatuak, sakabanatuak eta desagertuak), baita frankismoak eragindakoak ere (hildakoak, espetxeratuak eta torturatuak), eta indarkeriak milaka aurpegi dituen indarkeria matxistaren biktima ere bai. Eta

horretarako, ezinbestekoa da gertatutako guztiaren berri zuzena ematea, memoria historikoa berreskuratzea eta azalaraztea.

- 141.** Bestalde, biktimei zor zaizkien aitortza, oroipena eta elkartasuna euren ideiak edo helburu politikoak alde batera utzita bideratu behar dira. Eta biktima izateak ez dakar berez berariazko influentzi politiko gehigarriarik, berariazko balio ideologiko hobeagorik. Are gehiago, ez dago biktima guztien posizio bakar bat, horretan ere anitzak baitira, eta hainbatetan haien artean kontrajarriak. Eskolan, berriz, elkarbizitzarako eta bakerako hezkuntza irizpide pedagogikoetan oinarritu behar da soilik, hezkuntzaren egunerokoan txertatu behar da beste zehar-lerroak dauden bezala, eta ezin da bideratu ekimen bakan eta entzutetsuen bitartez. Auzi honetan, “Giza-eskubide guztiak pertsona guztiontzat” printzipioa oinarritzat hartuko bagenu, arazoaren amaierara daraman bidean egongo ginateke, printzipio hori onartzea ezinbestekoa baita bakea eta normalizazio politikoa lortzeko.
- 142.** Egun, erronka honi ez diote batere laguntzen hainbat arlotik plazaratzen ari diren ekimen eta egitasmo batzuek: memoria historikoaren legea bertan behera uztea praktikan, ahotsa biktima konkretu batzuei bakarrik ematea, edo, hezkuntzaren arloan, LOMCEren aldebakarreko substratu ideologiko partziala eta guztiz atzerakoia ikastetxeetan inposatzea, esaterako. Ikusten gabiltzanez, boteretik urrats gogorak ari dira ematen herritarron eskubide zibilak murrizteko, adierazpen askatasuna mugatzeko, protestak erreprimitzeko eta debekatzeko, demokrazia ahultzeko, gobernuen kontrako adierazpenak zigortzeko, pentsamendu kritikoa zapaltzeko... Segurtasuna aldarrikatzen omen dute askatasunaren gaintetik, hau mantendu ahal izateko hura indartu beharra dagoelakoan, baina azkenean bata eta bestea gal ditzakegu. Gauzatuz gero, eskolan ere islatuko liriateke horiek guztiak, eta hasteko Giza Eskubideak eta Herritartasunaren Hezkuntza arloa desagerrarazi nahi da hezkuntza-lege berrian. Badirudi asmoa dela gainditua uste genuen garai bateko pentsamendu bakarrera itzultzea, aldebakarreko kontrol soziala berreskuratzea, disidentzia isilaraztea, giza eskubideak eta eskubide zibilak, askatasuna eta diferentzia gainditzea; azken finean, doktrinamendu ideologikoa saihesteko aitzakian, gutxi batzuen moral zapaltzailea berrezartzea, konstituzioaren eta zuzenbide-estatuaren defentsaren izenean, “hezkuntza zibikoa” izenpean mozorrotuta, eta, hainbatetan, erlijio jakin baten printzipioak berreskuratuta.

143. 3.6. Laikotasuna

- 144.** Erlijioa gizabanakoaren eta familien eremu pribatuari dagokio; hortaz, onartezina da eskola doktrinatzeko erabiltzea, eta, beraz, eskola curriculumetik

eta eskola jardueretatik kanpo egon behar du. Eskola curriculumak jaso behar du erlijioa pentsamendu, kultura, arte edota historia alorretan, baina jendarte demokratiko, askotariko eta kultura anitzeko batean, erlijio ikasgaiak ez du tokirik izan behar. Gainera, tokia izateak bidegabekeria sozial eta politiko nabarmena dakar berekin, zeren eta diru-funts publikoak desbideratzen baitira fede edo sinesmen baten aldeko jarduerak ordaintzeko. Laikotasunak kontzientzia askatasuna bermatzen du eta sinesmen berberak ez dituzten pertsonen arteko bizikidetza ahalbidetzen du.

- 145.** Gure jendartean erlijio aniztasuna gero eta handiagoa bada ere, erlijio katolikoak pribilegio bereziak ditu. Pribilegio horiek, Espainiako estatuak eta Vatikanokoak 1979an sinatu zuten “Irakaskuntza eta Kultura” gaiak jasotzen dituen hitzarmenean dute jatorria. Egoera ez da konpontzen sinesmen guztiei erlijio katolikoak dituen pribilegioak aitortuta. Gure ustez, erlijio guztiek, katolikoak barne, ez dute inolako pribilegiorik izan behar eta jendarte demokratiko batean dagokien lekua hartu behar dute, eta leku hori jendarte zibilean dago, ez, eskolan. Hezkuntza-sistemak ezin du baztertu edo lehenetsi inor dituen edo ez dituen erlijio-sinesmenengatik.
- 146.** Bultzatu nahi dugun eskola benetan inklusiboa izan dadin erlijio-heziketa konfesionala eta horren sinbologia guztia eskolatik kanpo utzi behar dira. Horrez gain, kezka handia eragiten digu ikustea nola areagotu diren, azken boladan, Espainiako estatuan eskuin-muturrak nazionalkatolizismoa berpizteko antolatutako kanpainak.
- 147.** Aniztasunaren aldeko bizikidetza demokratikoak ezinbestekoa du hautu pertsonal, erlijioso zein politikoa, eta guztiekiko errespetua; baina hautu horietako batek ere ez du pribilegio berezirik izango. Gertakari antropologiko, soziologiko, kultural eta historiko garrantzitsu diren heinean, erlijioak, ideologiak eta zibilizazioak ezagutzea curriculumaren zati izan daiteke, baina zeharkako trataera baino ez dute izango.
- 148.** Denon hezkuntza arautzean, beraz, erabat onartezin egiten zaigu hezkuntza-autoritateen klandikazio interesatua PPren barneko ultra eskuinetik, elizaren sektore erreazionarioenetik eta jendartearen muturreko gutxiengo atzerakoienetik datozen presioen aurrean. Ez dugu inondik inora onartuko LOMCEren dogmatismoa, erlijioaren inposizioa, gutxi batzuen moralaren injerentzia norbanakoaren bizitza pertsonalean nahiz denon arteko giza harremanetan (emakumearen berdintasuna, genero-identitatea, dibortzioa, askatasun eta aniztasun afektibo-sexuala, abortatzeko eskubidea, askotariko familia-ereduak, antisorgailuak, obediencia itsuaren balioa, erruaren eta bekatuaren txantajea, injustiziaren aurreko konformismoa eta etsipen konplizeak, boterea eta ezarritako hierarkiekiko errespetu sakratua...).

149. 3.7. Hezkuntza kalitatezkoa eta berritzailea

- 150.** Egun, irakaskuntzan garatzen ari diren kalitate-sistemak hezkuntzaren kalitatearen adierazle esanguratsutzat ezarri nahi dira. Haien kudeaketa-rako oinarriek eta irizpideek lotura handiagoa dute ikuspegi enpresaria-lekin eta antolaketa mailako “eraginkortasunarekin”, hau da baliabideen “errentagarritasunarekin”, hezkuntza-kalitatea benetan neurtu ditzaketen adierazleekin baino. Antolaketa eta kudeaketa garrantzizko gaiak badira ere, “kalitate-sistema = kalitatezko hezkuntza” lotura mekanikoa itxuraz-koa baino ez da. Hezkuntza-kalitatea sistema osoari dagokio eta ezin da mugatu kudeaketa arlorak bakarrik.
- 151.** Ikastetxeen benetako kalitatea neurtzeko, kontuan hartu behar dira: zenba-teraino den egokia ikasleen premia zehatzen eta inguruneko eskakizunen aurrean ematen duten hezkuntza-erantzuna eta zenbateraino bete diren hezkuntza-proiektuan finkatutako helburuak. Hortaz, jendarte-errenta-garritasuna izan behar da irizpidea. Halaber, diseinatu eta diruz hornitu beharko dira irakasleen prestakuntza, eta maila guztietako ikastetxeen hezkuntza-eskaintza, jaiotzetik hasita unibertsitateraino.
- 152.** Etengabe aldatzen den jendarte baten beharretara egokitzeko, hezkuntza publikoari eskatu beharreko kalitatearen oinarrian egon behar dira eten-gabeko prestakuntza eta hezkuntza-berriztapena. Zeregin horretan uniber-tsitateak, eta unibertsitate-ikerketak bereziki, ekarpen oparoa egin behar du sistema osoaren kalitatea hobetzeko: ezagutza mailan, berrikuntza-bideetan, jendarte-prozesu berriaren trataeran, arazo sozialen antzemate eta azterketan, etab. Horretarako bi esparruen arteko harremanak eta elkar-lana behar bezala eraiki, sustatu eta sendotu behar dira, hala administrazio arloan, nola arlo profesionalean.
- 153.** Hezkuntza-sistemak irekita egon behar du beti, etengabe gertatzen diren aldaketa sozialak eta jendartearen bilakaerak berak aurrean ezartzen diz-kion erronka berriak bere gain hartzeko, eta malgu jokatu behar du bere eskaintza aldaketa horietara egokitzeko. Baina hori guztia ezin da egin aldaketa horiek era kritikoa aztertu gabe.
- 154.** Esaterako, oso garrantzitsua da informazio- eta komunikazio-teknologia berriak garatzea, baina ezin zaio eman lehentasuna erabilera hutsari, eta beste kontu asko ahaztu, hala nola: teknologia horiekiko dependentzia ko-mertziala, kontsumismo neurrigabea eta antiekologikoa, balizko osasun arriskuak, neurritz kanpoko garapen antzua, aukera-berdintasuna, informa-zioaren analisi kritikoa eta software librearen abantailak. Eskolan ahalik eta

gehien urrundu beharko ginateke sektore horri lotu ohi zaizkion erabilera merkantilista eta komertzialetatik.

- 155.** Jendarte-aldaketek eragindako premia berriei behar bezala erantzuteko, berrikuntzak ezarri behar dira eta baliabideak jarri irakasleen hasierako prestakuntza nahiz etengabeko prestakuntza eguneratzeko. Eta teknologia berrien kontuan adierazi dugun bezala, prestakuntzan ere planteamendu komertzial hutsak saihesteko ahaleginak egin behar dira.
- 156.** IKTen erabilerari dagokionez, hainbat arrisku ekidin behar dira: baliabide berriak erabiltzea betiko gauzak egiteko (horretarako ez baita halako inbertsiorik justifikatzen), edo, okerragoa litzatekeena eta maiz aipatzen dena: teknologia berriak sartzeagatik hainbat urtetako atzerakada metodologikoa egitea.
- 157.** Egun IKTen erabilera eskolan behar-beharrezkoa da, eremu horretan ere ekitatea bermatzeko. Izan ere, eskolako ohiko jardueretan IKTak erabiliz ziurtatu dezakegu ikasle guztientzat alfabetizazioa digitala eta, horrela, sozializazioarako 3. esparrua deitu izan den horretara sarbidea ziurtatu, bretxa digitala sortzeko arriskuari aurre eginez.
- 158.** Administrazioak ekidin beharko luke kanpoko enpresetara jotzea formazio bila, barnean dituen baliabideak indartuz horretarako.
- 159.** Dena den, teknologia berrien aldeko jakin-mina sustatzearekin batera, beharrezkoa da haiekiko lilura gehiegizkoaz libratzea. Izan ere, hezkuntzarloan benetako berrikuntza ez da etorriko teknologia berrien erabilpen soiletik, halabeharrezkoa izango baita, gainera, berrikuntza pedagogiko eta metodologikoen garapena.
- 160.** Horretarako, ikas-irakasteko jarduera esanguratsuetan teknologia berriek zabaltzen diguten leihoa era funtzionalean aprobeztatu behar dugu informazioa lantzeko, komunikatzeko, kooperazioan aritzeko eta parte hartzeko.

161. 4. Langileak, funtsezkoak hezkuntza sisteman

- 162.** Ikastetxeetako irakasleak eta irakasle ez diren langileak funtsezko zutabe dira edozein hezkuntza-prozesutan, eurak protagonista baitira benetako premiak zeintzuk diren antzemateko orduan, erantzunik egokienak diseinatu eta martxan jartzeko orduan, beren lorpen eta disfuntzioak ebaluatzeko orduan, ikasleen tutore izan eta orientatzeko orduan, familiekin derrigorrezko koordinazio-lana egiteko orduan eta ikastetxeak kudeatzeko orduan. Hori dela eta, hezkuntza-munduan, ez dago ezer arrakastatsurik egiterik langileek proiektuetan parte-hartzen ez badute, laguntzen ez badute eta beren egitekoak aintzat hartzen ez badira.
- 163.** Ildo honetatik, azpimarratu behar da hasierako prestakuntzaren garrantzia. Irakaskuntza ez unibertsitarioari begira garrantzi handia izango dute Irakasle-eskolako ikasketen antolaketa berriak eta Bigarren Hezkuntzarako masterrak, hain zuzen, hezkidetza, kulturartekotasuna, herrien arteko nahiz jendarte-barneko elkartasuna, ingurunearekiko errespetuzko kontsumo sostengarria, giza-eskubideak eta bizikidetza ezinbesteko gaiak izango direlarik, besteak beste. Bigarren Hezkuntzan antzemandako gabeziek zalantzan jartzen dute Bigarren Hezkuntzako irakasleak prestatzeko masterraren egokitasuna hasierako prestakuntzarako bide bakarra izatea. Ez litzateke baztertu behar, batez ere irakaskuntzara zuzendutako hainbat ikasketatan, irakaskuntzarako prestatzea etorkizuneko irakasle hori karreran bere gaian gaitasuna eskuratzen duen bitartean. Gertutik jarraitu beharreko gaiak dira, ahalik eta prestakuntzarik praktiko eta osoena lortzearen.
- 164.** Lan-arlo hutsari erreparatuta, hezkuntza-administrazioak eta patronalek konpromiso argia hartu behar dute irakasleen eta hezkuntza-sisteman diharduten gainerako langileen lan-baldintza objektiboak zaindu eta hobetzeko. Administrazioaren konpromisoak ondokoak ere ziurtatu behar ditu: hezkuntza-proiektuen eraginkortasuna eta jarraipena bermatzeko behar besteko egonkortasuna; prestakuntza iraunkorra; langileen zerrendak berritzea; eta beren funtzioen, horiek betetzeko behar den denboraren eta ordainsarien balorazio egokia. Gainera, kontuan hartu behar ditu hezkuntza-sisteman diharduten langileen motibazio pertsonala eta profesionala, eta jendartearen zerbitzura egiten duten lanaren garrantzia aitortzea eta jendarteak balioestea. Hori guztia dela eta, eskola indartzeko eta hobetzeko bidean beharrezkoa zaigu berau baliabide egokiz janztea eta horrekin batera lan baldintzak hobetzea. Izan ere, langileen alde darabilgun ekintza sindikalak lotura zuzena du gure hezkuntza eta jendarte eredu aurrera eramateko lanarekin.
- 165.** Hasteko, azken urteotan pairatzen ari garen egoerari buelta eman behar zaio. Gobernu neoliberalak, merkatu finantzarioen menpe, defizit publikoa

ustez gutxitzeko hartutako neurriak bertan behera utzi behar ditugu ahalik eta lasterren: murrizketak, kaleratzeak, lan-baldintzen okertzeak, lan orduen eta ratioen igoerak, soldaten jaitsierak, aurrekontuen urritzeak... eten egin behar dira lehenik eta behin.

- 166.** Horien guztien kontra, esaterako, irakasle-plantilak gaztetu egin behar dira erretirorako baldintzak hobetuz (eta, noski, Muface eta jendarte segurantzaren erregimenetakoak berdinduz), baita lan-banaketarako neurriak ere ezarriz, ikastetxeetan betetzen diren berariazko funtzioengatik beharrezko ordu-kredituak emanez, ordezen guztiak lehen egunetik betez, in-terionoen egonkortasuna berreskuratuz, lan administratibo eta burokratiko gero eta handiagoak betetzeko langileak kontratatuz, erronka berriei aurre egiteko beharrezko prestakuntza egokia lan-ordutegiaren barruan eskainiz (euskara, ingelesa, IKT, hezkidetzak, elkarbizitza, metodologia, curricula-ma, ebaluazioa, berrikuntza...), ikasleen hezkuntza premia bereziak behar bezala bideratzeko profesional gehiago izendatuz, besteak beste.
- 167.** Bestaldetik, formula berriak ere aztertu behar dira askoz kaskarrago dau- den langile batzuen egoera duintzeko. Irakaskuntza publikoan irakasle in- terino eta ordezkoen egungo prekarietatea mantendu ezina da dagoeneko. Moduak bilatu beharko lirateke haien lan-egonkortasuna handitzeko eta bermatzeko, baita oposizioen bidez bakarrik ez ezik, beste sarbide berri batzuk ere enplegu finkorako. Haur eskolak partzuergoko hezitzaileen kasuan, kontratu-motak, derrigorrezko mugikortasuna, egonkortasunik eza, ordezenak... sakon jorratu eta hobetu behar dira. Nafarroako Haur Hezkuntzako 1. zikloko kudeaketa Nafar Gobernuak hartu beharko luke lan baldintzak duinak eskainiz langile guztiei. Eta gauza bera esan daite- ke hezkuntza laguntzako espezialisten eta beste kolektibo batzuen ingu- ruan. Irakaskuntza Pribatuan ezinbestekoa da 0-3 zikloko langileen egoera hobetzeko neurriak hartzea.
- 168.** Ikastetxe publikoetan langileen lan-egoera eta baldintzetatik haratago, hezkuntza-administrazioaren eta ikastetxeen funtzionamendua ere hobetu beharra dago hainbat ataletan: hainbatetan guztiz alferrikakoa eta hezkun- tza kalitatean benetako efekturik ez daukan eskatutako lan burokratiko gero eta handiagoaren zama (administrazioaren zerbitzurako bakarrik, ka- surik hoberenean), lanpostuak esleitzeko hainbat prozeduren gardentasun eta informazio nahiko falta, planifikazio-prozesuetan langileen ordezka- rien parte hartzerik ez edo oso urria, baliabideak hornitzaileko adminis- trazioaren arbitrarietate batzuk, egiazko negoziazio kolektiboari muzin egitea, ikastetxeen behar errealei erantzuten ez dieten hezkuntza-laguntza zerbitzuen hedapen batzuetan zentzugabea gela barruko irakasleen ko- purua jaisten den bitartean, ikastetxeen egiazko eguneroko errealitatetik

oso urrun geratzen diren departamentuen lehentasunezko ildoen eta proiektuen inposaketa, administrazioaren kontrol gero eta zorrotzagoa baina autonomia eta malgutasun eza, ikastetxeei barik administrazioari soilik mesedea egiten dioten batere praktikoak azaltzen ez diren aplikazio informatiko korapiloaren nahitaezko ezarpen zoroa eta arrapaladakoa, lurralde ordezkartzetan zuzendariek eta irakasleek hainbatetan jasan behar duten tratu desegokia eta eskasa...

- 169.** Eta, azkenik, horietako askoren azpian azaltzen den kontsiderazio falta LOMCEk ere ez du hobetuko, kontrakoa baizik. Honetan, adibidez, irakasleen “autoritatea” ustez aldarrikatzen bada ere, praktikan gero ikastetxearen barruan erabakitzeko ahalmena, partehartzea, talde-lana eta barne demokrazia ezabatu egiten da guztiz. Edo bestelako presioak leporatzen zaizkie irakasleei (haien ikasleen emaitzen balizko porrotaren errudun bakarrak, kanpo ebaluazioak, auditoretzak, mota guztietako txostenak...), sari eta zigorren joko sinplista eta maltzurrian sartu araziz (gero eta exigentzi gehiago eta horien araberako osagarri ekonomikoak, edota karrera profesionalaren ondoriozko bereizketak). LOEren ostean planteatu bazen ere, are gehiago Enplegatu Publikoaren Estatutua gauzatu ondoren, badi-rudi azkenik LOMCEk ekarriko digula Irakasleen Estatutua, eta hau izango dugu aurrerantzean erronka nagusietakoa.

STEE-EILAS
X. KONGRESUA
GASTEIZ
2014ko
maiatzak 16 eta 17